

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Bakaikoa txapeldun!

Promozioko Buruz Burukoa irabazi du / 13



Irurtzunek gaurtik eta Bakaikuk eta Iturmendik igandean, Trinitate ospakizunak dituzte / 8

Lizarragako argindar mikrosarea estatuko 20 proiektu aitzindarienen artean aukeratuta / 11



Tarima Beltza antzerki taldeak 'Madres y pasotas' antzezlan berria mustuko du bihar / 20

Sakandarren profil profesionala hobetzeko neurriak aurkeztu dira jardunaldi batean / 6

Etxarriko plazan estalopea jartzeko bi aukera momentuz. Udalak batzarra deitu du gaia aztertzeko / 7

Sakanako Mankomunitateak bizikleta festa antolatu du igandean Olaztin / 15

Larunbatean Aitzkozar krosa jokatu da Bakaikun eta Binakako Andra Mari proba Etxarrin / 17

Josefina Arregi klinikaren historian oinarritzen den ikuskizuna bihar Gayarre Antzokian / 23



"Gaur gu, bihar zuek"

Pentsio duinen aldeko manifestazioa Altsasun, bihar, 12:00etan / 2-4



Sasoiaik deituta lurtzungo azokan egindako kontzentrazioa. UTZITAKOA

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

“Erosketa saskiaren prezioak egunero gora egiten du. Eta hori nabaritu egiten da”. “Lotsagarria da haiek diru ugari eramatea eta, gero, gu goseak! Ezin dugu ezta berogailua piztu! Estufa batekin moldatu beharra dugu. Negu guztia hotzak!” “600 euroko pentsioa dut. Rajoyk hilabetez diru hori kobratzea nahiko nuke. Hilabete bakar bat! Besterik ez. Ea hilabete akaberarako laukorik duen. Niri ez zait iristen!” “Ez dago eskubiderik. Pentsio txikia duginok xentimoak kontatzen ibili behar izaten dugu. Ez dugu eta hilabete akaberarako ez zaigu pentsioa iristen. Argindarra, telefonoa, berogailua, komunitatea... dena ordainduta, dirua neurritz gatatuta ere, ez zaigu iristen. Ezinezkoa da”. “Igogailua ere kendu beharko dugu”. “Dudan pentsioarekin ez dut nahikorik”.

Kontzentrazio bat despeditu ondoren, amorruez esandako esaldiak dira goikoak. Pentsiodunen artean egoera okerreanean daudenak: emakumezkoak. Sei pertsona, sei egoera, gutxieneko pentsioak berdintzen dituenak. “Eta itxoin. Trumpen politika

Pentsiodunak, denak

Gaur edo bihar. Horregatik, Nafarroako Pentsionistak Martxan, Otsailaren 22ko plataforma eta Sasoia elkarteak adin guztietako pertsonak espero dituzte bihar, 12:00etan, Altsasuko Foru plazatik aterako den manifestazioan

horiekin petrolioaren prezioak gora egin du eta hori laster baino lehen dendako produktuetan sumatuko dugu”, esan digu pentsio duinen aldeko kontzentrazioan zegoen beste pentsiodun batek. Pankartaren atzetik duin bizitzeko moduko pentsioa aldarrikatzen dute. Haiendako. Eta atzetik gatozen guztiendako. Horregatik, kontzentrazioak egiten dituzte. Horregatik, deitu dute bihar eguerdiko manifestazioa. Eta sakandar guztiak nahi gaituzte Altsasuko manifestazioan bihar.

Eskaerak

Nafarroako Pentsionistak Martxan, Otsailak 22ko pentsiodunen plataforma eta Sasoia, Nafarroako jubilatutako eta pentsiodunen elkarteak Sakanan pentsio duinen alde elkarlanean ari dira. Aurreneko biak Altsasun ari dira batez ere. Sasoia, berriz, Arakil eta Aranaz aldean. Kanean denbora luzez aldarrikatzen ari direna babes handiagoarekin ozenago esan nahi dute biharko manifestazioan : pentsioen % 0,25eko igoera ez dela nahikoa; pentsioen igoera Kontsumo Pre-

zioen Indizearen (KPI) arabera izatea nahi dutela; gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa exijitzea eta pentsioen sistema publiko propioa aldarrikatzea.

Horrekin batera, manifestazioa hiru erakunde deitzaileek 2011n eta 2013an onartutako pentsioen erreforma bertan behera uztea eskatu dute. “Erreforma horiek Toledoko Ituna deitutakoan adostu ziren, eta bertan parte hartu zuten alderdiek eta sindikatuak egungo egoera larrira ekarri gaituzte: pentsio kaxkarrak jasotzen di-

tugu; alarguntza pentsioak bereziki kaxkarrak dira eta emakume alargunak zigortzen dituzte batez ere.

Otsailaz geroztik pentsio duinen alde egindako mobilizazioek “pentsioen gaia alderdi politiko eta sindikatu guztien agendan sartzea ekarri dute eta, ondorioz, hainbat mugimendu egin behar izan dituzte, gure itxaropenak eta beharra inondik ere betetzen ez dituztenak”. Esaterako, hiru erakundeek ez dute onartzen PPK eta EAJk lortutako akordioa: “itxurakeria da eta jasagarritasun faktorea 2.023. urtera arte atzeratzea ekarriko du. Faktore horren bidez pentsioak are gehiago murriztuko dira, dagokion taldearen bizi itxaropenaren arabera kalkulatu baitira”.

Gonbidapenak

Manifestaziora deitu duten erakundeek iritziz, “pentsioen arazoa ez da adineko jendearek soilik eragiten dion arazo bat, pentsioena egungo gizarteak duen arazo nagusienetako bat da”. Horregatik, sakandar guztiak manifestazioan parte hartzera deitu gaituzte. Baina dei berezia egin diete hiru kolektibori.

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Etxe pasiboetarako egokia
5 9000

Isolamendu nukleo indartsua
IKD

Beirak lehorrean jarrita
STV

Aparteko azala koloreztatua



Bilkuretan azken informazioen berri jasotzen dute elkartzaren diren. Bide batez, herritarrei euren ikuspuntua zabalitzen diete. UTZITAKOIA

Feministei, lehenik. "Emakumezkoek, arlo guztietan, bidegabekeria handienak sufritu dituzte! Jendarte patriarkal, neoliberal eta kapitalista honetan, pentsiodunen kolektiboan, atzera ere, bidegabekeria eta desberdintasuna pairatzen dute emakumezkoek". **Langileei eta langabeei** ere luzatu diete gonbidapena: "zuen laguntza eskatzen dugu, arazoa denona delako. Egungo langileak etorkizuneko pentsiodunak zarete! Eta bide honetatik... PPren lan erreforma bertan behera utzi beharra dago!" **Gazteei eta ikasleei** gonbidapena egitean arrazoi berak eman dute, etorkizuneko haiek ere pentsiodunak izanen direla. Eta gogorarazi dutenez, "herri honetan lortu diren gizarte arloko aurrerapen guztiak gazteria eta ikasle mugimendua beti buruan eta konprometituta izan da".

Jubilatuei eta pentsiodunei: "kontuan izan dezagun botere handia dugula, gure botoa. 10 milioi pentsiodun gara, 10 milioi boto. Erabil ditzagun zuzenean eragiten diguna aldatzeko". Azaldu dutenez, "etsipenez" ikusten dituzte inkesten emaitzak: "PPk behera egiten duela esaten dute, baina boto horiek Ciudadanosen eskura pasatzen direla esaten dute". PP-ri edo Ciudadanos emandako botoak "pensionisten interesen kontrakoak, feminismoaren kontrakoak eta zure seme-alaben interesen kontrakoak" direla gogoratatu dute.

"Pentsiorako eskubidea ezin da ukitu"

Pentsio duinen aldeko manifestazioa egingen da Altsasun bihar, 12:00etan. Hiru erakunde deitzaileen ordezkariekin prentsurrekoaz aparte elkartzu gara, euren itzaropen eta kezkez hizketatzeko

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Laurek jendetsua espero dute biharkoa. Manifestazioaren aurretik Nafarroako Pentsionistak Martxan taldeko Fernando Iriarterekin, Otsailak 22ko plataformako Pello Arregirekin eta Migel Angel Montesinosekin eta Sasoia elkarteak Luis Igeltzekin elkartzu gara.

Lauek argi dute pentsioak eskubide bat direla. Arregik gaineratu duenez, "langile guztion eskubidea da. Urtetan kotizatu dugu. Inori ukatu ezin zaion eskubidea da". Igeltzek esan digunez, "persona batek bere lana uzten duen garaian bizitzeko modu egokia eta duina izateko eskubidea dauka". Montesinosek gogoratu duenez, "pentsiorik ez balego jendeak ezin izan litzateke mantendu". Beste hausnarketa bat gehitu du Iriarterek: "hainbat urte kotizatu eta gure bizitzako azken etapan pentsio eskasa... oso gaizki gelditzen gara. Eta gainera daude kasu jakin batzuk,

seme-alabak langabezian eta astero gurasoen etxera joan behar dutena bazkaltzera. Gaur egun 700 euroekin bi edo hiru belau-naldi bizi behar izatea ez da normala. Gure ustez dirua badago, ongi banatu behar dugu. Justizia pixka bat".

Eskubide bete gabea

Pentsioek eskubide bat argi utzi digute, baina eskubide hori gaur egun "ez da behar lukeen bezala betetzen", Arregiren esanetan. Pentsio duinak ez izatearen ondorioei erreparatu die Igeltzek: "zenbat jende dagoen 400 eta 700 euro artean kobratzen duena. Denok dakigu gaur egun diru horrekin ez dagoela ezer egiterik. Horren ondorioa da milaka jubilatu ezin dutenak neguan ez berogailua ez argia behar den ordutan piztuta izan. Hori estutasunean eta miserian bizitzea da". Eta Arregik gaineratu du: "horregatik gaude mobilizazio honekin. Gero eta gehiago estutzen gaituzten legeak ezartzen

ari dira". Iriarteren iritziz, pentsioa "gizarte arazoa da? Ba, lehenik, gizarteak eztabaidatu behar du, sakondu. Baina gobernu kalean presionatu behar dugu, Nafarroan, Madrilan, edo edozein lekutan".

Feminizazioa

Eta pentsio duinen faltagatik okerraren daudenak emakumezkoak direla gogoratatu dute lauek. Igeltzen esanetan, "haiekin kristoren injustizia dago. Emakumezkoen bizimodua eta etorkizuna negargarria da". Montesinosek esan digunez, pentsioan "kasu batzuetan % 70era arteko murrizketa izaten dute. Horri ezin zaio eutsi. Eta alargunen kasua ezta ere. Gutxieneko pen-

tsioena eta beste hainbat. Konponbidea eman behar zaio".

Iriarteren jakinarazpena: "alargun gehienak emakumezkoak dira. Atzera, ere, prekarietateak emakume aurpegia du". Alargundu direnak euren bikotekidearen pentsioaren % 52 jasotzen dutela gogorarazi eta Igeltzek: "hori sekula ulertu ez dudana gauza bat da. Eskubide osoa dauka bere senarrak bizi zela ordaindu eta egin duen lanaren benefizioa berarendako jasotzeko. Zeren gizonezkoa lanean egon den bitartean etxean egin du lana. Emakumezko horrek bere bizi guztia hor lurperatu du. Ez dago eskubiderik bere senarra hiltzen den garaian hark kobratzen zuen pentsiotik % 52 uztea. Hori injustizia izugarria da".

Konponbidea?

Gutxieneko pentsioa "1.080 eurora igotzea eskatzen ari gara. Kolpean halako igoera utopia izan daiteke, baina horretara hurbildu behar du" esan digu Arregik. Izan ere, Montesinosek azaldu duenez, "gaur egun 400 eta 450 euroko gutxieneko pentsioak daude. Baina Nafarroan eta Euskadin pentsioen osagarri bat dugu eta pentsioak Lanbide Arteko Soldatarekin parekatzen dira. Benetan, lotsagarriak diren gutxieneko pentsioak daude".

Iriarterek azaldu digu nondik ateratzen diren 1.080 euro horiek: "Europako gizarte kartak plan

**AUTOBUS ZERBITZUA:
IRURTZUNDIK BIHAR
11:00ETAN ABIATUKO
DA. ZIORDIRAINO
JOANEN DA**

Hurrengo orrian segi >

teatutakoa da hori: lanean ari den pertsonaren soldata 1.200 eurokoa da eta horren % 90, gutxi gorabehera, 1.080 euro dira". Eta gogorarazi du aurten Lanbidearteko Gutxieneko Soldata 736 euro ingurukoa dela.

Arregik eskaerak zerrendatu dizkigu: "Kontsumo Prezioen Indizearekin (KPI) batera eguneratzea pentsioak. Gutxieneko pentsiodunei eta alargunei KPI igoera baino handiagoa eman. Alargunen pentsioak bikoteak jasotzen zuenaren % 62an egon beharko luke gaur egun, baina % 52an dago oraindik. Aurten % 56ra igotzea pentsatzen ari ziren. Eta 2019an % 60ra. Gobernuak ezarritakoa ez litzateke beteko".

Igeltzek gogoratu du "krisiaren kontu horrekin pentsioak izoztu" zituztela. "2011ko eta 2013ko lan erreformekin erosahalmena % 13 jaitsi zaigu, gutxi gorabehera, pentsioak KPIarekin eguneratu ez dituztelako" azaldu du Iriartek, gaineratuz: "bi-zi-kostuaren garapena ez da publikatzen den KPI hori. Ikusten da gaizki deitutako krisiaren zama sektore ahulenen bizkar dagoela. Jendeak gainezka egin du".

Ez daude ados

Estatuko aurrekontuak onartze-ko negoziazioan PPK eta EAJk lortutako akordioa ez dute gogoko. "Orain beraiek pentsiodunen erantzunarekin pixka bat estututa sentitu dira", esan digu Igeltzek. "Pentsiodunendako euro gutxi batzuk besterik ez dira. Arazo nagusia da dagoen desberdintasun handia eta aberastasunaren banaketa okerra. Dirurik ez dagoela errepikatzen dute behin eta berriz. Dirua badago. Ikusi da. Nora bideratzen dute? Eta nondik ateratzen dute? Gure beldurra da diru hori ere ateratzen dutela atera behar ez luketen lekutik, beste zerbitzu batzuei kenduta". Iriartek akordio horretan konfiantzarik ez dutela esan du.

Kaletik Toledoko Itunean eragin ote daitekeen galdetuta Montesinosek esan digunez, "beste guztia bezala, Toledoko Ituna manipulaturik dago. Konpondu beharreko makina bat gauza dituzte, esaterako: politikoen pentsioak kanpora atera beharko lituzkete. Ez dago eskubiderik politikoko batek 4 urte lan egiteagatik pentsio gorena bermatua izatea eta bitartean bes-



"Pentsioak denoi eragiten digute, ez soilik kontzentrazioetara etortzen garenei".

teek 40 urte lan egin behar izatea, eta ea zer iristen zaien".

Privatizazioa eta bestelako kezkak

Hiru elkarteetako kideak etorkizunean etorriko denarekin kezkatuta daude. Igeltzek: "badakigu gizarte ongizatea hautsi nahi dutela. Orduan aitzakia guztiak bilatzen dituzte behar dena ordaindu behar den garaietan ordaintzeko. Pentsioei dagokionez, hemen badago beste puntu garrantzitsua: gobernuak bankuen eta aseguru etxeen esku utzi nahi du pentsiodunen etorkizuna. Horren bidez konpromiso bat gainetik kentzeko modua da. Hori ez da berez gobernuak nahi dutena. Baizik eta gobernuak eskatzen dietena. Gaur egun badakigu gobernuak egin

"EZ DAGO ESKUBIDERIK BERE SENARRA HILTZEAN HAREN PENSIOAREN % 52REKIN UZTEA"

behar izaten dutela kapitalak esaten diona. Aspaldi ari dira jendea bide horretatik bideratu nahian".

Langileak, etorkizuneko pentsiodunak gogoan, Iriartek esan du: "lan merkatuaren erreformekin aldapan behera" goazela. "Lehen mila euro kobratzen zena urruneko gauzatzen genuen. Orain hori kobratzera iristen den langilea pozik egon daiteke".

Arregik horretan sakondu du: "orain urrun daudela iruditu arren gazteei neurri horiek guztiak tokatuko zaizkie. Guztioi murrizketa izugarriak harrapatuko gaituzte. Gaur egun lanean hasten den gaztea jubilatzerakoan, gobernuak egin nahi dituen murrizketak betetzen badira, pentsioa % 30 edo %40 gutxiago izanen da. Eta horri gehitu 67 edo 70 urtera arte lan egitea. Ez dakigu non bukatuko den".

Konpondu beharreko "gauza asko" ikusten ditu Montesinosek: "langileak ez dira nahikoa diru irabazten ari. PPren lan erreformak ezabatu egin behar dira". Arregik gaineratu duenez, "

erreforma hori kenduz gero gizarte segurantzak diru gehiago jasoko luke, jendeak gehiago kotizatuko lukeelako. 700 euroko soldatekin zer kotizatu behar du jendeak? Jendeak errealtate horrekin egingen du topo etorkizunean. Lan bat eta 700 euro ematen dizkiote. Hori ez da konponbidea". Eta Iriartek beste kezka bat azaldu du: "hemendik aurrera ea nola gelditzen den jasangarritasun faktorea eta beste. Urte gehiago lan egin beharko dute".

Bestalde, udarekin kezkatuta daude hiru elkarteetako kideak. "Jendea desmobilizatu egiten da eta agintariek erreformak egiteko baliatzen dute". Hala ere, jendea ez dago borroka uztearen alde, ziurtatu du Igeltzek. "Agian borrokaren inten-

"ARAZO NAGUSIA: DESBERDINTASUN HANDIA ETA ABERASTASUN BANAKETA OKERRA"

tsitatea pixka bat jaitsiko da udan, baina, jendeak inondik inora ez du borroka hau utzi nahi". Lakuntzarrak Hego Euskal Herriko pentsiodunen plataforma eta mugimenduen asanbladaren bileran jasotako iritzia da hori.

Konponbidea? Borroka!

"Borrokatzea, borrokatzea eta borrokatzea da konponbidea. Itotzen gaituen legedia hori guztia bertan behera uztera behartzea gobernuak. Herria gero eta gehiago itoko dutelako bestela". Hala esan digu Arregik. Eta aitortu du: "guk onura gutxien aterako dugunak gara. Onuradun handienak hemendik bi urtera eta hortik aurrera jubilatuko direnak eta lan prekarioarekin lanean hasiko den gazteria. Kotizazio eskasekin, gainera murrizten badiete... a zer etorkizuna".

Manifestazio handia izatea nahiko lukete. Iriartek jakinarazi digunez, "gaztetxeak, institutuak, emakumeak... kanpaina egin dugu. Aktiboa den jendea oso hotz zegoen. Eta jubilatuek ere, noski. Altsasun asteleheneroko kontzentrazioetan 50-60 inguru egonen gara. Oso gutxi da. Irurtzunen eta Etxarrin hamabost egunero egiten dute kontzentrazioa. Pixkanaka-pixkanaka jendeak kontzientziazten ari da. Hori inportanteena da. Ez da soilik gure arazoa". Arregik esan digu, jendea "egoismoagatik bada ere" manifestazioan parte hartu beharko lukeela; "gaurko langilea biharko pentsioduna da".

Argi dute "kaleko mobilizazioek Madrilgo eta Iruñeko gobernuak mugiarazi dituztela. Horri eutsi behar diogu", esan du Iriartek. "Mahaian kolpea jotzeko garaia da" gaineratu du Igeltzek. Eta azpimarratu du PPK eta EAJk aurrekontutarako onartutakoa "soilik bi urtetarako" dela. Biharko manifestazioa zeinendako den gogorarazi digu: "gaur edo bihar denoi tokatu behar zaigun egoera da jubilatzearena. Gazteei, etxeko lanetan ari denari, kanpoko lanetan ari denari, langileari, jubilatuari, langabeei... parte hartzearena denei egindako deia da". Iriarteren esperantza litzateke larunbatekoa "iraganaren eta etorkizunaren artean aldea markatzea". Montesinosek aurreratutakoa duenez, "gure aldarrikapenekin segitzeko asmoa dugu, justua delako".



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Idea zaharkituak garai berrietarako

Ekainaren 2rako manifestaldia deitu dute “Denon etorkizuna berdintasunean, hizkuntzagatik diskriminaziorik gabe” helburupean. Nafarroako Gobernua euskara sustatzeko egiten ari den politika inposaketa omen da; hala ere, euskarari ez diotela gorrotorik baiaesten dute. Oraingoz, PPNk

eta UPNk babesten dute. Halaber, PPNk, helburu berdinarekin, herri herriko karabana ere antolatu du. PSN ere manifestaziora joango da baina ez da antolaketa ibiliko. Nire aldetik, erabat bat egiten dut lelo horrekin. Nola ez, bada? Izan ere, Euskararen legea onartu zenetik 30 urte

pasatu badira ere, txiripa hutsa izaten da Nafarroako Gobernuaren leihatilaren batean euskarazko harrera izatea. Pentsa noraino garen euskaldunok gutxietsiak, non poztasunez hartzen baitugu “egun on” bezalako keinu bat, nahiz eta hurrengo hitzak izan ez dakiela euskara, eta hitz egiteko espainolez esateko. Espainol hiztunek, ordea, ez dute inon inolako zailtasunik. Egoera hori ulertzeko, aski da ikustea Gobernuak emandako datuak: 16.000 lanpostutatik

soilik 160k dute euskarazko profila, alegia, % 1ak juxtu juxtu; Ospitale multzoan 6.142 lanposturen artean soilik 1ek. Nik pentsatu nahi nuke antolatzaile horiek errespetatzen dutela ni euskalduna izatea, eta Gobernuak eskaintzen dituen zerbitzuetan, edo bidaiatik itzultzean Nafarroako Foru Komunitatea, ongi etorri edo horrelako zerbaite sumatu edo irakurri nahi izatea. Nik onartzen dut haiek espainolez egin nahi izatea eta era

masiboan euskarari uko egitea, nekez ulertzen badut ere. Horregatik, euskaldunok aintzatetsiak izateko Gobernuak lehenengo urrats ñimiñoak egitean, halako erantzun bortitza ikustea ikaragarria iruditzen zait. Gehiengoaren aitzakiaz, mezu “saside demokratiko” horren atzean, euskaldunokiko intolerantzia eta ukazioa daude, alegia, frankista berrien supremazismoa. “Hay que eliminar toda disidencia” izan zen frankista zaharren leloa.

HARA ZER DIEN

Giza eskubideak hil zirenekoa

ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA
Giza Eskubideen 4. artikulua dio: INORK EZIN GAITU ESKLABU EGIN.

Baina, migratzaileak eta errefuxiatuak lan egiteko saltzen dira: etxeetan, tailer klandestinoetan lan egiteko... erreskateak eskatzeko amutzat erabiliak, eta emakumeen kasuan, esklabu sexual edota

prostituzioan lan egiteko. Gizon-emakume migratu eta errefuxiatuak erakutsiak, erosiak eta esplotatuak dira. Afrikar kontinentetik Europara iritsi nahi dutenek Mediterraneo zeharkatzen (aurten 459 hildako dituen itsasoa, eta 15.380 hildako 4 urteetan), hori da aurkitzen dutena. (CEAR)

“Gure lurraldetik ihes egiten dugu ametsei jarraiki; gosetik ihesi, jazarpenak pairatzen ditugulako –erlijioagatik, gudak direla eta, sexu arrazoiengatik, etniak direla eta...– Guzti horietatik ihesi, erosoago den norabaitera iritsi nahi dugu. Jakin badakigu, bidea ez dela erraza izango, eta miseria, nekea, mafiak... jasaten ditugu”. OIM-ek, Nazio Batuen elkarte batek, txostenean dioen bezala, pertsona hauek herrietako plaza zein garaje publikoetara

eramaten dituzte Libiako hainbat tokitan, eta han erosle posibleei aurkezten dizkiete, merkantzia balira bezala. Gizaki hauen salmentaren prezioa 171 eta 429 euro artean dago. Osasuntsu daudenak, emakume ederrak, igeltsariak, nekazariak, zurginak....edota beste ofizioen bat dutenengatik, gehiago ordaintzen da. Emakumeak biktima bikoitzak dira “ jipoiak, bortxaketak, pilaketak...”. “Badakigu hainbat emakumek antisorgailuak

hartuz hasten dutela haien bidaia, badakitelako bortxatuak izango direla”. Badakite bidea nolakoa izango den, eta hala ere, bere gain hartzen dute bidearen arriskua”. Zergatik? Ez dutelako etxean geratzerik. Bizia jokoan dutelako: bonbak erortzen zaizkie, soldaduak sartzen zaizkie etxean haiek hiltzera... Bizi ezineko tokiak dira, nun ezin duten onartu seme-alabek bizitzea. Noraino iritsi behar dugu?

GUTUNA

Alternatiba badugulako... bagoaz burujabetza feministarantz

AINARA LADRON URBIEITA
BILGUNE FEMINISTAREN IZENEAN

Sistema kapitalista heteropatriarkalaz hitz egiten dugunean, sistema sozioekonomiko batez baino gehiago ari gara; izan ere, eragiten digun zapalkuntzaren irakurketa eskema produktibotik soilik egiteak, zapalkuntza osotasunean ez

baloratzea dakar. Bizitzaren merkantilizazioa pentsaezina zitzaigun mailetara iritsi da; eta sistemaren subsistentziarako emakumeek zapalduak izaten jarraitzen dute, bai boteretsuen eskutik, baina baita menperatuen eskutik ere. Bizitza sostengatzeko ardura feminizatu egiten da, eta bizitzeko behar ditugun

errekurtsoak lortzeko egiturazko segurtasun eza sortzen digute. Momentuan aseta bagaude ere, etorkizun hurbilean ez dakigu nola eta non egongo garen, horrek guztiak bizi-proiektu osasuntsu bat amesteko, erabakitzeko eta zehazteko ezintasuna sortzen digu. Honen aurrean gure hautua argia da: gatazka erdigunean jarritz, sistemak berak bizirauteko behar dituen trikimailuak agerian utzi, eta hauek gainditzeko eremu pertsonalean geratzea nahi

duten gatazkak politikoak direla aldarrikatzen dugu. Hau da, emakumeak zapaltzen dituenak bere pribilegioen aurrean desboteretze prozesu bat ematea hautu politikoa da; heteropatriarkatua kolokan jartzen duenak eta beste harreman-eredu batzuk garatzea erabakitzen duenak hautu politikoa egin du; abortatzeko eskubidearen alde borrokatzea hautu politikoa da; maitasun erromantikoa kolokan jartzea hautu politikoa da; e.a. Finean, bizitza era duinean

garatzeko ditugun mugen aurrean erabaki politikoak hartu eta kolektibizatzea da burujabetza feminista, gure gorputzen askatasunetik herri askatasunera salto egitea; ez delako herri askerik izango, pertsona askerik ez badugu. Honenbestez, sakandar guztiei dei egiten diegu datorren ekainaren 9an “Dena aldatzeko, ongi bizitzeko: burujabe” lelopean Altsasun eginen den aldarrikapen-egunean parte hartzeko; besteren artean, Euskal Herri feminista aldarrikatzeko.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martínez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Miren Alonso Razkin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



Profil profesionalak hobetzeko neurri sorta

Nafar Lansarek eta Sakanako gizarte eragileek ezinbesteko jotzen dute ibarrari egokitutako prestakuntzarekin sakandarren profil profesionalak hobetzea, lan munduan sarbide hobia izateko

SAKANA

Gizarte arloko ikerketa eta garapen proiektua da ERSISI, Europar Batasuneko Gizarte Berrikuntzako programaren parte dena eta Nafar Lansareren eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez Tuteran eta Burunda mendealdean garatzen ari dena. Bi zerbitzu horiek integratu edo bateratu egin dira gizarte eta lan arazoei aurre egiteko tresna eta metodo berriak sortzeko. Enplegua lortzeko eta bestelako zailtasunak dituzten pertsonekin lan egiten da proiektuan, arreta pertsonalizatuagoa eskainiz. 100 pertsonengana iritsiko da. Programa aitzindaria da estatuan.

Pertsona horiek lan merkatuan sarbidea lortzea errazteko helburuz lantaldea osatu dute Nafar Lansarek (Altsasuko enplegu bulegoak), Burunda mendealdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Sakanako Enpresariaren Elkarteak, Sakanako Garapen Agentziak eta Cederna-Garalurrek. Lantaldeak bere burua Arbizun egindako aurkeztu zuen atzo. Ekitaldiak ere ERSISI proiektua eta bermatutako errenta kobratzen duten pertsonen kontrataziorako diru-laguntza berrien inguruko argibideak emateko balio izan zuen (1.000 euro ar-



ERSISI proiektuari buruzko jardunaldia hartu zuen Arbizuko Olatzea hotelak.

teko diru-laguntzak, kontratazio motaren arabera).

Hiru ikerketa

Nafarroako Gobernuak eskatutako hiru ikerketa aurkeztu ziren atzo. Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) *ERSISI proiektuaren inguruko enplegu aukerak* ikerketa egin du eta Arbizun atzo aurkeztu zen. Txostenean jaso denez, Sakanan kontratazioak hobera egin du, Sakana mendealdean langabezia % 47 jaitsi da. Baina, neurri batean, lan merkatura sartzeari lortu ez du-

tenak emakumezkoak, 45 urte edo gehiago duten pertsonak eta prestakuntza eskasa duten pertsonak dira; ERSISI proiektuaren helmugak. Joan den urtean Altsasuko Enplegu bulegoan kontratazioa % 37 igo bazen ere (92), hobekuntzak langabe sektore guztiei ez diela eragin nabarmendu du NUPen ikerketak. Nafarroan 2017an kontratuen % 46-7 emakumezkoen sinadura bazuten, Altsasuko enplegu bulegoan % 43koa zen.

Prestakuntzaren aparteko garrantzia nabarmentzen du iker-

ketak. Ikerketak aurreko joera baieztatzen du, hau da, trebakuntza txikia duten pertsonen kontratazioak behera egiten du eta gora trebakuntza handiagoa dutenena. Sakanan kontratazioen % 49,5 prestatutako pertsonena da (bigarren hezkuntzatik gorakoa).

Pertsona horiek lan munduan sartzeko, ikerketan hurrengo proposamenak egiten dira: arlo pribatuak, publikoak eta gizarte ekimenek enplegua sortzea; arlo pribatuan industria garbiketa, enpresa txikien bidez, edo sartzeko enpresak edo baso-garbitakoak, turismoari bultzada emanen diotenak; industria, nekazaritza-elikagaiak, turismoa eta merkataritza arloetan prestakuntza indartzea; familia-bizitza eta lana bateratzeko bitarteko sortzea eta zabaltzea eta, azkenik, jendea lantokietara edo prestakuntza guneetara gerturatu duen garraio zerbitzuak martxan jartzea.

Enplegurako ibilbideak

InPactos aholkularitzak egindako beste txosten batean agerian gelditu da Sakanan arlo teknikoa duten industria profilak direla lanerako eskaintzen direnak. Zenbait enpresa halako langileak ibarretik kanpo bilatzen hasi direla ere gaztigatu du.

Ikerketaren arabera sakandarrak prestakuntza-birziklatzerako jarrera ona dute, nahiz eta lan mundura sartzeko ez diren pertsonendako etengabeko indartze positiboa behar den. Emozioen garrantzia presente dago, beraz, enplegurako orientazioa eta laguntza kontuan hartzen da. Langabeek ibarrekiko atxikimendu handia dute eta Sakanan bertan trebatu eta lan egin nahi dute. Bestalde,

ikerketan parte hartu duten eragileek enplegu bulegoaren jendearekiko gertutasuna eta haren eta beste erakundearen arteko lotura egokia dela esan dute. Eta ondorioztatu dute ERSISI proiektua martxan jartzeak Sakanan sartzeko soziolaboralaren arloan ari diren eragileen arteko harremana estutu duela. Aldi berean, Nafar Lansarerekin elkarlanean ari diren eta gizarte ardura duten enpresa eta erakundeak ezagutzeko zibilua sortzea proposatu du.

Trebakuntzari dagokionez, bigarren hezkuntzatik industria prestakuntzari bulkada ematea eta lehen hezkuntzatik industria arloan izan diren lanpostuen berri emanen duen orientazioa indarrean jartzea proposatzen da. Baliabideen errentagarritasuna ziurtatzeko prestakuntza eskaintza dagoen eskaerara egokitzea proposatu du ikerketak. Aldi berean, landa eremuetako irakasleen diskriminazio positiboa eskatu du.

Ikerketan jasotzen denez, prestakuntza eta enplegu programa mistoak kolektibo ahulenak lan munduan sartzeko formula egokia dira. Enpresariak Profesionaltasun Ziurtagiriak ezagutzen hasi direla jaso dute. Nahiz eta trebakuntza handiagoa dutenek ikastaro berezituagoak eskatu. Azkenik, kokapenagatik, sartzeko soziolaboralerako akzioak Lanbiderekin koordinatzea proposatzen da.

GIZARTE ARLO GUZTIETAN ENPLEGUA SORTZEKO ELKARLAN PUBLIKO PRIBATUA PROPOSATZEN DA

Esataria: Eneida Gaurko gaiak:

- Joanes Bakaikua pilotari txapeldunarekin hizketan
- Tarima Beltza antzerki taldearen estreinaldiaz
- Pentsio duinen aldeko manifestazioaz

Ostiralero 9:30ean
SAIOA

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

107.3 FM
beleixe
guaixe.eus-en ON LINE



Momentuz plazan estalopea jartzeko bi aukera daude, baina gehiago aurkeztu litezke. ETXARRI ARANAZKO UDALA

Plazako estalopea non jarri erabakitza

Udalak batzarrera deitu du garagarriaren 16rako, 19:00etan, udaletxean. Irailaren 28an onartutako proposamena da estalopea kiosko atzean jartzea. Udaletxe pareko oinezkoen gunen berria jartzea ere proposatu da. Aukera berriak aurkez daitezke ere

ETXARRI ARANATZ

Larrañeta kalean eta plazan oinezkoendako espazio berriak sortu ondoren, plaza ingurua hobetzeko prozesua despeditzeko estalopea jartzea besterik ez da falta. Etxarri Aranazko Udalak sustatutako parte-hartze prozesuan eguraldi txarra egiten duenerako estalope baten premia sumatu zen. Irailaren 28ko batzarrean erabakitakoaren arabera estalope finkoa izanen da, zurez eta metalez eginga eta argia pasatzen utziko duen material batekin. Hura jarri ahal izateko plazako zuhaitz batzuk kendu beharko lirakeela onartu zen.

Azken batzar hartan erabaki zen estalopea kioskoarekin in-

tegratzea eta hark eskailerako dituen aldean, atzean jartzea, udaletxe parean libre uzteko. Kioskotik Lazkoz eta Maiza kaleen parera arte erdiko bi zuhaitz ilarak kenduko lirakeke eta hor jarriko litzateke estalopea. Horri A aukera deitu diote udaletxean.

Oinezkoendako gunak egiteko lanak despeditu berritan, udaletxe parean zabalgun handia gelditu da. Udalak proposatu duen B aukera estalopea liburutegi parean kokatzea litzateke, eraikin ondoan dauden zuhaitzak mantenduz baina beste sei kenduz, estalopeak oinezkoen zatia hartuko luke, Ugalde kalera arte kasik. Batzarrean bi aukera horien eta

aurkez litezkeen artean erabakiko da. Eta behin hori zehaztuta proiektua egin beharko da.

Joan ezin dutenendako

Batzarrera joan ezin duten herritarrei Etxarri Aranazko Udalak aukera eman nahi die euren estalopeari buruzko ekarpena idatziz aurkezteko aukera izanen dute garagarriaren 5era arte. Ekarpene horiek udaletxean (asteagunetan, goizez), liburutegian (arratsaldean) edo kultura@etxarriaranatz.eus e-posta helbidean aurkeztu daitezke. Udaletik jakinarazi dute bide horien bidez emandako iritziak batzarrean jasoko direla.

Hilerria erabiltzeko ordenantza onartuta

Unanuko Kontzejuak kanpo santurako araudi berria prestatu eta ekarpenekin ondu du

UNANU

Legegintzaldi hasierako asmotako bat bete du Unanuko Kontzejuak: hilerriko erabilera arautzen duen ordenantza onartzea. Aurreneko zirriborroari unanuarrek hainbat ekarpen egin ondoren behin betiko onartu da. Ordenantzan jasotzen denez, kanpo santuan hilobi hutsak izanen dira udalerriko biztanleriaren zentsuaren arabera kopuruan, edo horietarako lur aski bederen bai.

Unanuko Kontzejuak onartutako kanpo santuko ordenantza jasotzen denez, gorpuari lur emateko hobia senideek edo haiek agindutako norbaitek egingen du, bestela kontzejuari dagokiona ordaindu beharko zaio. Bestetik, kanpo santuan tokirik gelditzen ez denetan hilobi zaharrenak kentzen hasiko lirakeela jasotzen da ordenantzan, beti ere, zentsuaren arabera espazioa uzteko. Ehorzketak egungo ilareei segika egin beharko da, beti ere, Unanuko Kontzejuak esandakoari segituta. Ornartutako araudi berrian lur-ematez aparte, hobotik ateratzeak, hilobietako elementuak, tasak eta bestelakoak ere arautzen dira.



Hiriberriko jaiak. ARTXIBOA

Arakilgo Udalak peoia kontratatze deialdia egin du

HIRIBERRI

Arakilgo Udalak bere lanetarako taldea indartzeko peoia kontratatu nahi du. Hiru hilabeterako kontratua eskaini du, garaatzaroaren 11tik irailaren 11ra arte. Deialdian interesa duten pertsonen udaletxean edo www.arakil.net web orrian opatu dezakete informazioa. Hautaketa prozesuan parte hartzeko izena emateko epea heldu den ostira-lean despedituko da.

Bestalde, Arakilgo Udalak 14-eta 30 urte bitarteko gazteendako jarduerak antola ditzaten diru-laguntzak emateko deialdia egin du. Kultura, ingurumen, gizarte edo kirol jarduerak aurkeztu daitezke diru-laguntza deialdian. Udalak 1.500 euroko poltsa du laguntzak emateko. Interesa dutenek euren proposamenak Arakilgo udaletxean irailaren 30erako aurkeztu beharko dituzte. Arakilgo Udaletik gazteak deialdian parte hartze- ra gonbidatu dituzte, gustuko jarduerak egiteaz aparte, herriei horrela bizia ematen dietelako.

BIOTERRA 2018

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

1 · 2 · 3 Ekaina FICOB A, Irun.

FICOB A

#Bioterra2018

Ficobara, zafaz irenean! euskotren (Irun-Ficoba geltokia)

DOHAINIK

bioterra.ficoba.org

Gonbidapen hau mazu eta azokaren sarreraren aurkeztu

energia berriztagarriak	osasuna	habitat osasuntsua
idea berriak	testu ekologikoak	ekoturismoa
nekazaritza ekologikoa	zentzudun kontsumoa	elkide osasuntsua
kosmetika ekologikoa	terapia naturalak	BIOTERRA

Ospakizuna Ergapean eta Ergan bertan

Trinitate ospakizunei emanda pasako dute asteburua irurtzundarrek. Mendira bihar goizean mendi lasterketa dela eta igoko dira hainbat. Igandean, berriz, arakildarrak, imoztarrak, eta guliarrak irurtzundarrekin mendiko ermitan elkartuko dira

IRURTZUN

Gaur hasi eta igandean bitartean Trinitate festak ospatuko dituzte irurtzundarrek. Biharko eguna kirol ekitaldiz beteta dago. Eta asteburuan mendi gainera igotzeko aurreneko aitzakia emanen du mendi lasterketak. Igandean, berriz, mendian gorako bidea erromerian hartuko dute irurtzundarrek.

Bestalde, Irurtzungo Udalak herrian bertan erosketak egitera gonbidatzen duen kanpaina egin du. Hilaren 3tik gaur arte herriko 28 dendetan erosketak egiten dituzten pertsonak sartuko dira zozketan. Asteburuan jakinen da zein den sariduna.



Herri bazkaria larunbatean Barazkigunean izanen da. ARTXIBOA

Trinitate ospakizuna Santa Marina ermitan

Bakaikuarrek eta iturmendiarrek igande goizean hartuko dute mendiko bidea

BAKAIKU

Urte bikoitia denez, Urbanas dagoen Santa Marina ermitako Trinitate festa Bakaikuri dago kirol antolatzea. Eguerdian izanen da sailduaren omenezko meza. Hura despeditu ondoren, Bakaikuko Udalak auzatea eskainiko du plazan. Eta horrekin batera Edor Zubeldia akordeoilaria hasiko da giroa alaitzen. Batzuen eta besteen arteko elkarriketek ez dutenez tripako zuloa estaliko, mahaira bazkaltzera eseriko dira. Ospakizunetarako propio prestatutako menuarekin.

Noizbait herriko bidea ere hartu beharra dago eta 18:00etan hasiko dira beherantz jaisten. Etxerako bueltan bakaikuarrek txistulariaren laguntza izanen dute. Erdi bidean, bargaren erdian, Dantzalarren, geldialdia egin eta dantzaldi motza egingen dute. Hura despedituta beherako bidean segituko dute, herri-raino. Plazan dantzarako doinuak Tiri-Terry dj-ak jarriko ditu, 19:30etik aurrera.

Baina bi herrietatik mendira aste honetan igoko diren egun bakararra ez da etzikoa izanen. Herenegun, pazko laugarren eguna zela eta sailduaren irudia igo zuten ermitara, bederatziurrena despeditu ondoren.

Galiziako gastronomiarekin hitzordua

Uharte Arakilgo plaza, atzera ere, jangela eta sukalde bihurtuko da. Oraingoan Galiziako sukaldaritzaz goatzeko aukera izanen da jangelan. Izan ere, laugarren urtez Lugoko Baralla pulpeiroa etorriko da, erkidego hartako eta oro har gastronomiaren zaleen gozamenerako. Makina bat mahai eta aulkiz beteko da plaza eta sukaldarien plantxetatik, parriletatik eta eltzeetatik olagarroa, lakona, Padrongo piperrak, ganba handiak eta txikiak, zanburinak, txurraskoa, kriolloa, txorizoa eta beste aterako dira mahaietara. Jatekoa bulkatzeko Ribeiro eta Albariño ardo txuriak eskainiko dituzte.

Galiziar erara prestatutako itsaski, haragi eta olagarroa dastatu nahi dutenek gaur, 20:00etatik aurrera dute aukera. Bihar eta etzi 12:00etatik aurrera izanen da zabalik, egun osoan. Larunbatean, herriko erraldoien eta buruhandien konpartsa berriro kalean izanen da.

Txikienak protagonista diren eguna

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta, Haurren eguna ospatuko da bihar. 11:00etan hasiko da aurpegi margotzeekin eta kareta tailerrarekin. 12:00etan Bordetxe abere zirkoa izanen da. Haurrak mahaira bazkaltzera 14:30ean eseriko dira. 16:00etan haurrendako jolasak izanen dira. Ospakizuna 19:00etan haiendako auzatearekin despedituko da.

Egitaraua

Ostirala 25

- 17:30** 12-15 urte arteko gaztetxoendako ginkana, plazan.
- 21:00** Demode Quartet taldearen *Todos los musicales o casí*, kultur etxean.

Larunbata 26

- 10:00** Ergako Trinitatera V. erlojupekoa igoera.
- 11:00** Haurren pilota partidak, plazako frontoian.

- 12:30-14:00** Kirola euskaraz, zunba eta haurrendako herri kirolak, plazako frontoian.
- 14:30** Herri bazkaria, Barazkigunean.
- 16:30** 28. Irurtzungo karate txapelketa, kiroldegian.
- 17:00** Kalejira Galtzagorri txarangarekin, Barazkigunetik.
- 17:30** 26. Irurtzungo pilota txapelketaren finala, Bi Aizpe pilotalekuan.

- 18:00-20:00** Septimo A taldearen kontzertua plazan.
- 22:00-23:00** Xabier eta Asier disko-jartzaile irurtzundar gazteak.

Igandea 27

- 11:00** Erromeria Ergako Trinitatera.
- 17:00-20:00** Herri jolasak Kulki taldearekin, Foru plazan.

Toponimiaz, pasiatzen

Etxarri Aranazko Udalak antolatuta, Jose Luis Erdoziarekin herriko toki izenak ezagutzeko aukera izan zen larunbat goizean. Hartan zortzi emakumek parte hartu zuten. Telleria zenetik Ustiyerako bidea hartu eta handik Soroberrietako bidetik Utzubar industrialdera atera eta bideberri zaharretik, Eragara eta eskolako bidetik herrira bueltatu ziren.



Bideoklipa grabatzen



Kamera aurrean. Atzean. Edo inguruan. Hala ibili

ziren asteburuan Iñigo Aritza ikastolako komunitateko ikasleak, gurasoak, irakasleak eta ikasle ohiak ere. Aurtengo Nafarroa Oinezeko bideo-kliparen grabazioan aritu ziren guztiak. Kantua zein den eta bideoklipa nolakoa den jakiteko oraindik ere itxaron egin beharko dugu.



BIKAIN GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

Euskararik gabe ezin dira puntu guztiak lortu

Udalaren bi lan-deialdietan hizkuntza jakin gabe 100 puntuak lor zitezkeen, euskararekin 105. Talde batek horren inguruko kexua azaldu zuen eta Arartekoak arrazoia eman dio eta udalari gomendioa egin dio

ALTSASU

Nafarroako Arartekoak, Francisco Javier Eneriz Olaetxeak, arrazoia eman dio Administrazioan Euskaraz taldeari. Hark kontrako kexa bat aurkeztu zuen, obra zerbitzuan aritzeko bi lehia-keta-oposizio mugatueta euskaraz jakiteari oso balorazio-maila txikia ematen ziolako Altsasuko Udalak.

Arartekoak kexa eta udalak bidalitako informazio-txostena aztertu du eta ondorioa ateratu du: bi deialdietan gehieneko puntuazioa 100ekoa zen. Euskararen ezagutza lehiaketa-fasearen barneko merezimendua zela eta gehienez 5 puntu lortu ahal zirela jasotzen da. Baina "deialditik ez da ondorioztatzen euskararen balorazioa oposizio-fasearen zati denik. Era berean, ezin da ondorioztatu faseetako batean ere ez dagoenik: edo lehiaketa-fasean dago edo oposizio-fasean dago". Horregatik, Enerizek Administrazioan Euskaraz taldearen "kexak oinarria" duela ebatzi du, "onartutako deialdiaren arabera, euskararen ezagutzaren merezimendua neutralizatuta edo gutxietsita gerta liteke, puntu guztiak bestelako merezimenduak batuta lor baitaitezke". Hau da, euskararen ezagutza kontuan hartu gabe deialdi horietan 100 puntuak lor zitezkeela eta hizkuntza ezagutzarekin 105.

Hori guztia kontuan izanda, Nafarroako Arartekoa den Enerizek honako gomendioa egin dio Altsasuko Udalari: "euskararen ezagutza nahitaezkoa ez den eta merezimendu gisa baloratu behar den kasuetan, lehiaketa-fasean ezarritako puntuazio osoa hizkuntza ofizial hori egiaztatuta gabe lortu ahal izatea saihestea (hau da, lehiaketaren puntuazio osoan euskararen ezagutzagatik puntuak sartzea), deialdiak irizpide horri egokitu".



Altsasuko udaletxea.

Horren guztiaren jakitun izan ondoren, Altsasuko Euskal Herriaren Euskaraz (EHE) taldeko kideek euren iritzia eman dute. Haien iritziz "beste behin, Altsasuko Udalaren euskararekiko ardura eza agerian gelditu da. Berri hau ez dugu sorpresaz hartu". Eta EHEko kideek gogorarazi dute udalak garbiketa eta lanen taldeetako postu guztiei hizkuntza eskakizuna kendu ziela. "Beraz, euskarak hutsaren hurrengo balio du Altsasuko Udaleko hainbat lanpostu lortzeko". EHEkoen iritziz,

"udalak bermatu behar du herritarrok euskarazko harremana eduki ahal izatea edozein langilerekin, dela udaletxeko harreraren zein bulegoan, dela kalean. Era berean, langile eskudunen hizkuntza eskubideak errespetatu behar ditu, horiek lan harremanak euskaraz edukitzeko eskubidea dute eta". Azkenik, Altsasuko EHEko kideek udalari exijitu diote "herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko konpromisoa har dezan, hori baita bere betebeharra".



Langileek enpresari alternatiba guztiak laguntzeko exijitu diote. Sodenari bustitzeko.

LABek Triman-en itxiera arriskuaz gaztigatu du

Enplegu Erregulazio Espedientea aurkeztekoa zen, baina lantokien ezezkoa jaso du enpresak

ALTSASU

LAB sindikatuak ohartarazi duenez, Triman Minerals SA enpresak ixteko "arriskua" du. Azaldu duenez, langileek hiruzpalau hilabete daramate soldata kobratu gabe. LABetik jakinarazi dutenez, "2016tik hona soldatak ez dira garaiz ordaindu eta zorra handitzen joan da langileekin eta hornitzaileekin".

Sindikatuak azaldu dutenez, enpresak lau lan zentro ditu, bina Asturiasen eta Nafarroan; guztira 59 langile. Haietatik 32 Iruñean eta Altsasun lan egiten dute. LABekoek azaldu dutenez, "Trimin Minerals SA enpresa entramatu konplexu baten parte da: Moncayo Real Estate SLU taldea". Talde horrek Fiteron Trituraciones Moviles SAU du eta han hiruzpalau Nafarroan-langile ditu. "Beraz, Nafarroan, guztira, 35 langile izan daitezke kaltetuak".

Zuzendaritzak hilaren 9an kontratuak behin-behinean etengo zituen Enplegua Erregulazio Espedientearen (EEE) kontsulta epea hasi nahi zuen. Horretarako, lantoki guztiek hura babestea eskatu zuen, bestela ez zuelako aurkeztuko. Langileen ordezkari guztiek "ezezko borobila" eman zuten. LAB-ek salatu duenez, enpresak ez du dokumentazio osoa aurkeztu. Gainera, Nafarroako lantokiei dagokien EEE hemen bertan negoziatzea eskatu du. "Une honetan ez dakigu zein den enpresaren asmoa".

Sindikatuak jakinarazi duenez, "proiektu bat aurrera ateratzeko enpresak Sodenara finantzazio bila jo zuen duela hilabete batzuk. Sodenak babestu zuen baina proiektuak ez zuen aurrera egin". LAB-ekoek diote alternatibak badaudela eta Altsasuko lantokia bideragarria dela.

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

ALZATE ERAIKUNTZAK s.l.

Zubezia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionesalzate.com

BILTOKI
TABERNA · JATETXEA

948 467 876 · Altsasu

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak

Inprimagailuendako
kartutxoak

948 460 477
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

sorginak
taberna

LAKUNTZA

948 576 357



Sakandarrak Gasteiz ondora daude deituta garagartzaroaren 10eko giza-katean.

Sakandarrak giza-armarriaren kate-begi bihurtuta

Gure Esku Dagok garagartzaroaren 10eko giza katean parte hartzera deitu du; Sakanakoak Gasteiz ondoan

SAKANA

Gure Esku Dagok deituta mila pertsonen baino gehiagoren artean Nafarroako armarria irudikatu zuten Iruñeko Gaztelu plazan larunbatean. Aitor Urrutia eta Miriam Mendikute bozeramaileek esan zuten, “erabakitzeko eskubideari heldu diogu, erabakitzeko eskubidea bultzatzea, burujabetza, elkarbizitza, demokrazia eta berdintasuna bultzatzea delako” adierazi zuten. Gaineratu zuten, nafarroak “erabakitzea maite dugu, denaz erabakitzea, herriar burujabe gisa. Eta ziur gaudela: gure etorkizuna erabakitzera goaz!”. Baieztatu zuten, “gure etorkizuna erabakitzea da gaur egungo erronka kolektibo ederrenetakoa”. Eta nora bide horretan pausoak ematera deitu zuten.

Aldi berean, gogorarazi zuten garagartzaroaren 10ean eraba-

kitzeko eskubidea bultzatzeko aukera “ezin hobea” dagoela: Donostia eta Gasteiz arteko giza katea. “Herriarrek osatutako 201,9 kilometroko kate hori ederra izango da”. Parte hartzeko herrietako taldeetan edo www.gureeskudago.eus-en izena eman.

Antolatzaileek “elkarrekin etorkizun demokratiko, justu eta duina eraikitze bidean, inoiz baino argiago dagokigu askatasunaren eta eskubide zibil eta politikoen defentsan elkarri eskua ematea”. Gure Esku Dagokoen iritziz, giza katea “balio behar du adierazteko herri hau ez dagoela prest atzera egiteko bere asmo eta helburuetan, aurrera egiteko determinazioa duela. Etorkizuna elkarrekin eraikitze borondatea erakutsi behar du mobilizazioak, horrek ahalbidetuko duelako mugak eta oztopoak gainditzea eta urrutira iristea”.

Bihar ohiko trenaren alde egitera deitu dute

Gasteiz eta Iruñea lotzen dituen trena pasatzean bilkurak egingen dira geltokietan, 15:45-16:20

SAKANA

Miranda de Ebro eta Zaragoza Sakanan eta Nafarroan barna lotzen dituen tren zerbitzua da Renferen erregionala, herrietan gelditzen dena. Lurraldea egituratzen duen eta pasatzen den lurraldeari zerbitzua eskaintzen dion tren eredu hori bizirik mantendu nahi dute. Horregatik, tren sozialaren alde eta Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako Nafarroako mugimenduak deitu du bihar arratsaldeko mobilizazioa. Trena pasatzen den herrietako geltoki eta garelketan kontzentrazioak egingen dituzte.

Eta deialdiarekin bat egin du Sakana Trenaren Alde taldeak. Sakanan bederatzi geltokietan eta garelketan jarri dute hitzordua eta sakandarrak haietan parte hartzera deitu dute, “tren soziala eta gure herriendako erabilgarria dena aldarrikatzeko”. Trena pasa baino ordu laurden lehenago norberaren herriatik gertuen dagoen garelkura joateko aholkatu dute.

Bilkuren ordutegia

Trenaren alde eta AHTren kontrako kontzentrazioak behean esandako ordutegian egingen dira. Ordu laurden lehenago egoteko eskatu dute.

- **15:45** Ziordia.
- **15:50** Olatzagutia.
- **16:01** Altsasu.
- **16:05** Bakaiku.
- **16:07** Etxarri Aranatz.
- **16:10** Lakuntza.
- **16:12** Uharte Arakil.
- **16:15** Hiriberri.
- **16:20** Izurdiaga.



Pello Mariñelarena ri omenaldia egin zioten larunbatean Etxarri Aranatz.

Mariñelarena gogoan izan zuten heriotzaren 25. urteurrenean

Preso zegoela Parisen hil zen. Ekitaldiaz aparte bere margolanen erakusketa ikusgai izan zen

ETXARRI ARANATZ

Pello Mariñelarena Imaz Parisen La Sante kartzelan preso zegoela HIESak jota hil zen 1993ko maiatzaren 15ean. Orduko hartan espetxean mediku arreta egokirik ez zuela jaso eta kartzelako osasun baldintza penagarriak zirela salatu zituzten. Pasa den asteartean 25 urte bete ziren etxarriarra hil zela eta igande eguerdian gogora ekarri zuten preso izandakoa. Goizetik kioskoan Mariñelarenak egingako koadroen erakusketa ikusteko aukera izan zen.

Eguerdian egindako ekitaldian antolatzaileek salatu zuten “espetxe politika kriminalak Pello hil” zuela, “bere onenean zegoela lapurtu ziguten Pello”. Azaldu zuten, “injustiziari aurre egin zion eskura zituen bitarteko guztiekin”. Espetxean idatzitakoak eta margotutakoak goan, esan zuten Mariñelarenak

“maitasunari, elkartasunari eta herrien arteko xamurtasunari kantu egin” ziola.

Hildakoaren idatzi batzuk irakurri ondoren, haiek “Euskal Herriaren aro berriaren ezaggarriak ezin hobe” azaltzen dituztela gaztigatu zuten: “amaiera eta hasiera gertaera bera dira. Bidea da garrantzitsua. Honatx herri honek duen erronka: aro bat itxi dugu, beste bat irekitzeko. 60 urte horietan ibili dugun bideak aukerak ireki dizkio askatasunari. Aurrera egitea dagokigu orain, bideari jarrai-pena emanez”. Ideiak gauzatzeko “ausardia” eta herriarekin “beti bat eginez” egin beharreko bidea dela gaineratu zuten. “Ibiltzen segituko dugu amesten dugun Euskal Herria gauzatu arte”. Plazako ekitaldiaren ondoren, bildutakoak kanpo santura joan eta lore eskaintza egin zuten.

Errefuxiatu eremuetara zaporeak eramateko

Zaporaak gobernuz kanpoko erakundearen aldeko jaki bilketa egingen da Altsasuko bi Eroskietan bihar, 9:00etatik 21:00etara. Erakundeak Grezian pertsona migratu eta errefuxiatuei jatekoa ematen die. Azaldu digutenez, barazki eta lekale kontserbak, hegazu eta sardina latak, arroza, pasta eta olioak behar dituzte.



Errefuxiatu eremu bat. ARTXIBOA

BANDOA

UDAL IGERILEKUAK

LAKUNTZAKO UDALAK SOROSLEAK BEHAR DITU

Kontratazioak Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu. Interesatua bazaude, Altsasuko enplegu-bulegoan inskribatu zaitez.

Epea: maiatzaren 30a arte.

Lakuntza, 2018ko maiatzaren 23a



Nafarroako Gobernuak interes foralekoa izendatu du. ARTXIBOA

Lehiakortasunerako eta eraginkortasunerako inbertsioa

Sunsundegui 5 milioi euro inbertituko ditu egungo azpiegiturak hobetu eta berriak egiteko

ALTSASU

Sunsundegui Altsasuko lantokian 5 milioi euroko inbertsioa egin behar du eta Nafarroako Gobernuak interes foralekoa izendatu zuen martxoaren 7an. Horren ondorioz tramitazio guztietan epeak murriztuko dira. Horren zergatia azaltzeko Manu Aierdi, Ekonomia Garapenerako kontseilaria eta lehendakariordea, Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Garapenerako Batzordean izan zen asteartean.

Enpresak bere lehiakortasuna hobetzeko inbertsioak eginen dituela azaldu zuen Aierdik. Alde batetik, autobusak egiteko prozesuaren kalitatea hobetu eta ekoizpen eraginkorragoa egiteko obra-ingeniaritza ikerketa. "Hau da, lantegiaren antolaketa nola hobetu". Bestetik, egungo eraikinak moldatu eta egokituko dituzte. Baita berriak jaso ere: pintura eta txaparako pabiloi berriak, biltegia handitzea eta langileen autoendako aparkalekua. Horiakin enpresak ekoizpen denbora eta prozesuaren eraginkortasunean hobetu eta, hala, produktibitatea bikoiztu nahi du. Dagoeneko udalaren baimena badu enpresak. Azkenik, argindar azpiegitura eta instalazioa egokituko, moldatuko eta potentziatuko du Sunsundegui. Hala konponbidea emanen dio segurtasunari, jarraipenari eta negozio arazoei, eraginkortasuna hobetuz.

Aierdik esan zuenez, "Sunsundegui azpiegitura zaharkituak, produktua eta merkatua zituen.

Ekoizpen inbertsioetan aspaldi bultzada honen premia zuen. Izan zuen finantza egoera zailak ez zion halakorik egiten uzten. Azkenean iritsi da unea". Kontseilariak esan zuenez, inbertsioaren eraginez "lantegiaren ekoizpen gaitasuna handituko da. Gainezka egitetik gertu zegoen. Bestetik, eraginkortasuna handitzea. Enpresarendako ezinbestekoa da autobus bakoitzeko finantza gastuen aurreko irabazi gordina handitzea. Baliabideak sortu beharra du. Horrekin batera, ekoizpen malgutasuna. 130 lanpostu sortzea eta eskualdean ere lanpostuak sortuko dira".

Enpresaz

Volvo enpresako txasiak karrozatzen ditu autobusak sortzeko. Luxu handiko autobusak ere ekoizten dituzte. Trenak aldian behin ere. Estatuaz aparte, Europako, Asiako eta Afrikako 16 herrialdeetara esportatzen ditu autobusak Sunsundegui.

Bestalde, enpresak Nafar Lan sarerekin batera, kontratazio konpromisoa duen prestakuntza proiektua antolatu du. Bere lantegian hiru prestakuntza ikastaro eta dagokien trebakuntza programa antolatu ditu autobus enpresak. Bakoitzean 15 langabe izanen dira, 45 guztira eta Sunsundegui gutxienez haiek 18 kontratatuzko konpromisoa hartu du. Interesa duten pertsonen izena emateko epea gaur, 14:00etan despiditzen zaie. Horretarako, Altsasuko enplegu bulegotik pasa behar da.



Berrikuntzaren Galerian 20 proiektu aitzindarien artean izango da. SGA

Mikro-sarea energia proiektu aitzindaritzat hartu dute

Lizarragako argindarra sortzeko mikro-sarea estatuko 20 proiektu aitzindarien artean erakutsiko dute Madrilen

LIZARRAGA

Energiaren eta Ingurumenaren Nazioarteko Azoka, Genera 2018, hartuko du Madrilgo erakustazokak, Ifemak, garagarrilaren 13tik 15era. Zientzia- eta teknologia-ikerketak babesteko, azokaren barruan dago Berrikuntzaren Galeria. Haren helburua da energia eraginkortasunean eta energia berriztagarrian aitzindariak diren 20 proiektu biltzea dituen. Horien artean dago argindarra sortzeko Lizarragan egin den mikro-sarea.

Antolatzaileek udaberrian deialdia egin zuten proiektu berritzaileak eta teknologikoak aurkezteko. Estatutik jasotako proposamen guztiak adituez eta profesionalaz osatutako epaimahai batek aztertu zituen eta horiek izan dira Berritzaileen Galeriarako aukeratuak izan diren 20 proiektuak.

Etxarri Aranazko Eseki SAL enpresak aurkeztu zuen proiektua, "ingurumen inpaktua eta energia gastua nabarmen jaitsi nahi duten herriandako argindarra sortzeko eta kudeatzeko konponbide egokia izan daiteke". Proiektua Lizarragako Kontzejua eta Sakanako Garapen Agentziak sustatu dute. Esekik mikro-sarea diseinatu eta egin du eta horretan CENERren laguntza izan du. 198.803 euroko aurrekontua du sareak eta Nafarroako Gobernuak % 45eko ditut-laguntza eman du hura egin ahal izateko. Sarea eginga dago eta egun hauetan Lizarragako argiteria publikoa berritzen ari

dira, bonbillak led argiengatik ordezkatur.

Mikro-sarea

Argindarra ura goitik behera mugituz sortzen da Lizarragako mikro-sarean. Ur-biltegi zaharrean pilatzen da ura eta hura aldapan behera askatzen da, turbinetatik pasatzen denean argindarra sortzen da. 100 metro beherago, hilerri ondoan ur-biltegi berri bat egin dute eta han jasotzen da ura. Haren inguruan eguzki-plakak daude, 20 kW-eko potentzia dutena. Haiek sortutako argindarrarekin herriko argi kontsumoak elikatzen dira, eta sobera badago, ura berriro goiko biltegiara igotzen da.

Mikro-sarea herriko argindar sareari lotuta dago. Beraz, han sortzen den argindarra sare orokorrera pasa daiteke edo Lizarragan bertan kontsumitzeko aukera izanen da: argiteria publikoa, kontzeju-etxea, elektrizitate-autoak kargatzeko puntua eta beste. Haren sustatzaileek sistema "malgua eta eraginkorra" dela diote: "argindar eskaera txikia denean ura geldi mantendu daiteke. Baina eskaera handitu edo prezioa igotzen denean elektrizitatea sortu daiteke". 50 kW-eko biltegiatze gaitasuna du. Eta batera-taldeak baino sistema hobeagoa da.

Sakanako udal ordezkariek proiektua bertatik bertara eza-gutzen dute eta bakarren batean ezartzeko aukera aztertzen ari dira. Gobernuak eta beste udal-letako bisitak hartu dituzte dagoeneko Lizarragan.



Lanetako pala hondakindegian.

Hasi dira hondakindegiko zati bat itxeko lanak

Zati bat itxi eta beste bat egokitzeko lanek 5 hilabeteko iraupena izanen dute

SAKANA

Lur mugimenduak egiteko pala bat lanean hasi berri da Sakanako Mankomunitateak Arbizun duen hondakindegian. Industriako hondakin bizigabe ez arriskutsuak botatzen diren 32.280 m²-ko hondakindegia zatia itxiko du. Aldi berean, hondakin mota hori hartzeko beste zati bat prestatuko da. 22.000 m² izanen ditu eta 98.000 m³ hondakin jasotzeko ahalmena. Zati berri horrek 10 urtez hondakinak jasotzeko aukera izanen du. Urtero 9.000 m³ jasotzea aurreikus-ten da.

Hondakindegia zati hori igarazgaitz bihurtzeko "plastiko" bereziekin batera 50 cm-ko buztin geruza jarriko da. Buztin hori hondakindegitik gertu dagoen Arbizuko partzela batetik aterako dute. Lan horietan, bestalde, Ziordiko Aralur enpresan zenaren inguruan dauden hondakin begetalen 7.000 m³ erabiliko dira. Lixibiatuak jasotzeko, haiek punpatzeko tresna eta eramateko hoditeria jarriko dituzte. Horiakin batera konpostatze prozesuan sortutako errefusa jasotzeko toki berria eginen da.

Arbizuko hondakindegian hasitako lanek 1,4 milioi euroko aurrekontua dute.



Ostegunean aurkeztu zuten Eskola Ibiltaria. UTZITAKOA

Sakanan eginen du Ikasle Abertzaleak-ek Eskola Ibiltaria

Udan eginen dute ibilaldia, garilaren 25etik 28ra. Irurtzundik Altsasura joanen dira, Sakana zeharkatuz

SAKANA

*Urrats bat marraztuz etorkizun*ean lelopean Ikasle Abertzaleak-ek eskola ibiltaria eginen du garilaren 25etik 27ra, Sakanan. Irurtzundik aterako dira eta Uharte-Arakil eta Etxarri Arantz pasa ondoren garilaren 27 arratsaldean Altsasura iritsiko dira. "Hainbat helburu jarriko dizkiogu aurtengo Eskola Ibiltariari", adierazi du Ikasle Abertzaleak antolakundeak atzo egin-dako agerraldian: "ildo ezberdina komunean jarri eta euskarazko aisialdi proposamena egin".

Ikasturtean zehar "hamaika borroken poderioz" Euskal Herriko hainbat ikastetxe astindu dituztela adierazi dute ikasleek: ikasle gelen aldeko aldarriak, errealidei planto egiteko dinamika eta martxoaren 21eko greba izan dira, besteak beste, Ikasle Abertzaleak-ek ikasturtean zehar egin dituen ekimenetako batzuk. Ikasturtea amaituta eta udaren etorrerarekin ez dutela "gelditzeko asmorik" esan du. Hortaz, Eskola Ibiltaria antolatu du: "ikasleok gure artean harremanak sendotzeko, ikasteko eta disfrutatzeko".

Ikasle Abertzaleak antolakundeak udarako antolatu duen Eskola Ibiltariaren helburua "borroka lokal" eta ildo "ezberdinak" elkarbanatzea, komunean jartzea eta "horien inguruan" hausnartzea eta formatzea da. Gainera, "uda dela aprobetxatuz, euskarazko aisialdi proposamen aparta azaleratuko dugu; ibilaldi, hi-

tzaldi, tailer eta musika emal diz beteta". Sakana aukeratu dute aurtengo Eskola Ibiltaria egiteko. Azkenengoa 2014. urtean izan zen eta Ziburutik Donostiara joan ziren.

Hiru etapa

Irurtzundik aterako da Eskola Ibiltaria garilaren 25ean. Uharte Arakileria iristean bazkari herrikoia eginen dute, eta, ondoren, "bigarren arlora" pasako dira gazteak: hitzaldiak eta tailerrak eginen dituzte. Garilaren 26an Uharte-Araketik Etxarri Arantzera joanen dira, eta iristean aurreko eguneko formula berdina errepikatuko dute. "Arlo teorikoa ez ezik, arlo praktikoa ere izanen ditugu". Gauean, "elkar ezagutzeko" afariak eginen dituzte eta afalostean kantuez eta "istoriotxoek" disfrutatzeko aukera egonen dela azaldu dute.

Garilaren 27an eginen dute Eskola Ibiltariaren hirugarren etapa gazteek. Etxarri Arantzatik aterako dira eta arratsaldean Altsasura iritsiko dira. "Hitzaldiak eta tailerrak amaitu ostean, aisialdirako eta festarako tartea ere izanen da". Hortaz, musika eskaintza zabala eta oparoa izanen dela aurreratu dute.

Bonoak laster jarriko dituzte salgai Euskal Herriko hainbat herritan. 4 eguneko bonoak, orokorrak, 20 euroko prezioa izanen du eta eguneko bonoa 8 euroren truke eskuratzeko aukera izanen da. Laster informazio gehiago zabalduko dutela aurreratu du IAK.

Arbizuk emakume gazteen topaketak hartuko ditu

Euskal Herriko neska* gazteen topaketaren egoitza izanen da Arbizu hiru aste barru, garagarriaren 16an. Arbizun tailerrak, mahai inguruak, hitzaldiak, bazkaria, kontzertuak eta beste prest izanen dira. Bazkarirako txartelak dagoeneko eskuragarri daude Sakanako hainbat herritan, ohiko tokitan.

Iragarritako topaketen ernamuna Euskal Herriko gazte mugimenduen GaztEraiki autogestio topaketa izan zen. Mila gazte baino gehiagok hainbat gairen inguruan eztabaidatu eta hausnartu zuten. Ildo haietako bat feminismoa izan zen eta 200 neska* gazte baino gehiago elkartu ziren. Handik sortu ziren joan den urtean estreinakoz ospatu zen udaleku feminista.

Arbizuko topaketan, goizez, hainbat tailer eta hitzaldi izanen dira. Eguerdian, mahai inguru orokorra izanen dute eta bazkaldu ondoren kontzertuak izanen dira. Garagarriaren 16ko topaketak "hausnarketa kolektiboan segitzeko, gure artean saretzeko, elkar ezagutzeko, korapilo zaharrak askatu eta berriak sortzeko" balioko du.

Harremanetarako: feminista-gazteak@gmail.com e-posta. Twitterren: @EH_NeskaGazteak eta Facebooken: Euskal Herriko Neska Gazteak.

Suteak San Juan auzoko etxea txikitu zuen

Garrek kixkalita utzi zuten Izurdiagako alde zaharreko, San Juan auzoko, 20. zenbakiko etxea. Etxeko nagusiak, 52 urteko emakumezkoak, larrialdi zerbitzuak gaztigatu zituen. Irurtzungo osasun etxeko medikuak eta erizainak emakumezkoak kea arnasteagatik toxikatze arina zuela atzeman zioten. Ezbeharraren etxeko txakurra hil zen.

Iruñetik suhiltzaileen autopunpa kamioia eta eskailera izan beste bat joan ziren. Haiek iritsi zirenerako suak behe solairu guztia hartuta zuen. Garren indarrak eta temperatura handiak etxearen lehen solairua erre zuten. Sua teilatura ere iritsi zen, baina egitura ez zen erori.

Goi tentsioko linea berria egin nahi dutela gaztigatu dute

Autopista Elektrikorik Ez plataformak jakinarazi duenez, Red Eléctrica de España SAK (REE) Castejon, Muru Artederreta eta Itsaso lotuko lituzkeen "autobide elektrikoa" eraiki nahiko luke. Plataformako bozeramaile Alberto Friasek jakinarazi zuenez, 400 kW-eko linea litzateke erakiko litzatekeena, Energia, Turismo eta Agenda Digitalerako Ministerioaren 2015-2020 Ennergian Plangintzan jasota dagoena.

REEk ez du jakinarazi oraindik zein ibilbide proposatuko dituen, baina ukitutako eskualdeak joan den urtean bertan behera gelditu zen Deikaztelu eta Itsaso arteko linearen ibilbide berak liratekeela gaztigatu dute plataformatik. Hala balitz, proiektu berriak Sakanaren zati handiena zeharkatuko luke.

Plataformatik azaldu zuten REEk parte-hartze prozesua martxan duela eta zenbait herritan informazio bilerak deituko dituela ibilbide proposamenak aurkezteko eta egokiena aukeratzeko. Friasek salatu zuen linearen beharraz eztabaidatzeko aukerarik ez dela izanen, "erabaki ahalko den gauza bakarra bidea izanen da. Inposizioa esaltzeko helburua duen tranpa da". 2017ko apirilean bertan behera utzi zuten Deikaztelu eta Itsaso arteko linea proiektua.

Altsasuko Gurasoek justizia eskatuko dute Iruñean

Auzipetutako zortzi gazte altsasuarren gurasoek kontzentrazioa deitu dute gaur goizerako. 12:00etan izanen da, Iruñean, Nafarroako Parlamentuaren parean. Han elkartzeko direnak preso dauden hiru gazteen askatasuna eskatu eta auzipetue-dako justizia aldarrikatuko dute. Epaiketa despidituta epaiaren zain daudela deitu dute gurasoek kontzentrazioa.

Ostiralero bezala, Altsasuko udaletxe parean, 20:00etan, aldarrikapen bera zabalduko da eginen den kontzentrazioan. Bestalde, Adurrek, Jokinek eta Oihanek Madrilgo espetxeetan preso 558 egun egin dituzte gaur bertan.

Bake-epaile titular kargua betetzeko deialdia Altsasun

Altsasuko Udalak jakinarazi du herriko bake epaile titularren kargua hutsik dagoela. Interesatuek Altsasuko udaletxeko bulegoan aurkeztuko dituzte eskabideak. Eta, harekin batera, norberari buruzko espedientea, akademia-titulazioa, esperientzia eta merezimenduak bildu behar baititu. Garagarriaren 7ra arteko epea dago horretarako.



Azokak jendea erakarri zuen

Eguraldia lagun, Lakuntzako bertako produktuen azokak jendea erakarri zuen igandean. Bisitariak ekoizleekin eta artisauekin hizketatu eta salgai zituzten produktuez hitz egiteko aukera izan zuten. Baita erostekoak ere. Brun forjariak lanean ikusi eta Iskidikoen kale animazioarekin eta gudi ibilaldiekin gozatzeko aukera izan zuten jendeak.

Beste txapeldun bat jaio da

PILOTA Joanes Bakaikoa Promozioko Buruz buruko Txapelketako txapelduna da, ederki sufritu eta gero Jon Erasuni 17 eta 22 irabazita. Pixkanaka hobetzen jarraitzea, bere helburua izaten jarraitzen duela oso argi du

Maidar Betelu ETXARRI ARANATZ

Duela urte t'erdi debutatu zuen profesionaletan Joanes Bakaikoak eta profesional mailako lehen txapela lortu du. Gutxi-naka hobetzen jarraitzea, horrek bere helburua izaten jarraitzen duela aitortu digu.

Iaz Arteagaren kontra galdu zuen Promozioko Buruz Burukoak. Aurten arantza atera duzu eta final oso gogorrean Erasuni 17 eta 22 irabazi zenion. Ederki izerditu behar izan zenuen, ezta?

Bai, profesional mailan pilotari guztiek izugarri jokatzen dute eta erraz irabaztea ez da batere erraza. Finala gogorra izan zen, eta irabazita, pozik nago.

Partida alde jarri zitzaizun. 9 eta 18 aurreratu zinen, baina partida izugarri gogortu zen; tanto oso luzeak jokatu zenituzten, nekea nabaritzen hasi zitzaizun eta Erasunek buelta eman zion...

Azken zatia oso gogorra izan zen. Hasieran abantaila dextekoa lortu nuen eta eskerrak; amaieran nahiko nekatu nintzen, bera gerturatzen hasi zen eta ni presioa sentitzen hasi nintzen. Presioarekin ez nuen nire mailarik onena ematerik izan, baina nola edo hala irabazi nuen. Ez nuen igual partida oso ona egin, baina finalak irabazteko izaten dira, ahal bada behintzat, eta irabazita, gustura.

Zer zioen aitzak, zure botilleroak?

Nirea egiteko, nirean zentratzeko. Lasai egoteko, partidatik ez ateratzeko eta nirean segitzeko,

hala egiten banuen ongi joanen zitzaidala.

Arerioaren horrelako erremontada bat datorrenean, final batean, Labriteko giroarekin... burua hotz izatea zaila izango da.

Bai, azkenean denok egon nahi dugu finalean eta behin iritsita, irabazi. Azkenean presioa pixkat sentitzen duzu, bestea ikusten duzu hurbiltzen, irabazi nahi horrek askotan estutu egiten zaitu. Jakin behar da nola edo hala aurrera egiten eta buruari gogor eginez lortu nuen irabaztea. Final bat irabazi ondoren ez da momentua akatsak eta beste aztertzeke, pozik egoteko momentua da. Orain bai, hemendik aurrera akats horiek zuzendu eta ahalik eta gehien hobetzen jarraitzea da kontua.

Nola ospatu zenuen?

Partida ondoren oso oso nekatuta sentitzen nintzen eta gorputza ez nuen oso temple onean. Familiakoekin eta lagun batzuekin Iruñean afaldu genuen, bueltatxo bat eman nuen baina ez nintzen oso berandu etxeratu. Aurrerago beste hitzorduren bat jarriko dugu, gustura ospatzeko.

Etxarritik jende asko joan zen finalera, ezta?

Bai, iaz jende asko joan zen eta aurten ere. Jendea ere ilusioarekin dago, eta hori oso eskertzekoa da.

Garaipen honek eragina izango du berehalakoan? Hemendik aurrera gehiago programatuko zaituzte?

Ez dakit. Partidak enpresak antolatzen ditu eta pilotariok jartzen digutena jokatu behar dugu. Debutatzerakoan helburua zen pixkanaka hobetzen joatea. Bide horretan nago, eta pixkanaka hobetzen jarraitzeak jarraitzen du nire helburua izaten.

Hurrengo urtean zu lehen mailako buruz burukoan arituko zara. Ilusioarekin egongo zara...


Bai, dudik gabe. Aurten promozio mailakoa irabazi izanagatik hurrengo urtean lehen mailan jokatzeke aukera irabazi dut. Nik gustura prestatuko dut txapelketa eta ilusio handiarekin jokatuko dut.

Udako torneoak datoz ate joka.

Bai. Iaz dena berria egiten zitzaidan, baina aurten pixka bat ezagutzen dut. Udan partida asko jokatzen dira, baina gogoz nago. Orain pixka bat deskantsatuko dut, paliza handia hartu nuelako, baina gero gogoeikin udako torneoetarako. Nafar batendako sanferminetan jokatzea egunik hoberenetakoa da. Labrit oso gustuko dut, betidanik etxetik gertu izan dut eta partidak ikustera gehien joaten naizen frontoia da. Sanferminetan egoten den giroarekin jokatzea oso polita da.

Nori eskaini zenion txapela?

Labriteri joan zen jende guztia-ri, animatzen egon ziren guztiei eta batez ere egunerokoan laguntzen didatenei, gurasoei, beti hor daudelako, eta inguruko jendeari.



Bakaikoak kostatako garaipen polita lortu zuen promozioako finalean. ASEGARCE



Gure Txapeldunarekin...

Derry taberna - Etxarri Aranazko Udala - Etxarri hortz klinika
Iraize taberna - Iratxo taberna - Iturri-Eder taberna - Karasatorre harategia
Leku Ona taberna - Marineletxe harategia - Xapatero taberna



Ane Cantero, Aroa Cerezo, Irati Igoa eta Maitane Vilariño, Mulierreko jokalaririk sakandarrak. MULIER

Mulier vs San Ignazio, puntako lehia Etxarrin

FUTBOLA Euskal Herriko Emakumezkoen Kopako final laurdenetako partida hartuko du Etxarrik asteartean, maiatzaren 29an, 19:30ean. Irati Igoa, Aroa Cerezo, Maialen Vilariño eta Ane Cantero sakandarren Mulierrek finalerdietara pasatzea du jokoan

Emakumezkoen Futboleko 2. Mailan jokatzeko du Mulier talde nafarrak. Bertan lau sakandar dabilta: Ane Cantero atzelari altsasuarra (1997-12-10), Irati Igoa aurrelari etxarriarra (2001-03-29), Aroa Cerezo atzelari la-kuntzarra (2002-02-26) eta Maitane Vilariño erdilari olaztiarra (2002-06-30). Azken hirurek aurtent debutatu dute taldearekin.

Taldea guztiz berritu zen denboraldi honetarako, 16 jokalaririk berri sartu baitziren, eta taldea sortzea eta egonkortzea, hori zen euren nahia, "indartsu izateko taldea sortzea" bere entrenatzaile Mikel Gonzalezen esanetan. Badirudi helburua lortu dela, Mulierrek 2. mailari eustea lortu baitu eta ligan zortzigarrena sailkatu da (33 puntu).

Euskal Herriko Kopa eta Nafarroakoa

Orain Euskal Herriko Emakumezkoen Kopan eta Nafarroako Kopan murgilduta dago taldea. Horrela, asteartean, Euskal Herriko Kopako final laurdenetako partida jokatu du Mulierrek Etxarri Aranatzan, 19:30ean San Donato zelaian hasiko den partidari. Irati Igoa bertakoa da eta

Sakanakoak dira ere Aroa Cerezo, Maitane Vilariño eta Ane Cantero. Azken honek, tamalez, ezingo du jokatu, atzera ere belanean lesioa duelako. Dena den, jardunaldi berezia izango da sakandarrendako.

San Ignaziok aurreko denboraldian lehen mailara igotzeko play-offak jokatu zituen eta aurtent Mulierren kontra aritutako bi alditan garaipen bana lortu du talde bakoitzak. Beraz, goi mailako partida lehiatuaz goatzeko aukera izango dugu asteartean, saria ez baita makala: irabazleak Euskal Herriko Kopako finalerdia jokatu du Athletic Club edo Errealaren kontra.

Horretaz gain, Nafarroako IMQ Kopako finala jokatu du Mulierrek ekainaren 9an Tafallan, Berriozarren kontra.

Irati Igoa, Aroa Cerezo eta Maitane Vilariño lan ederra egiten ari dira Mulierren. Hurrengo urtean ere taldean jarraituko dute. Aldiz, Ane Canterok oraindik ez du erabaki, kanpora baitoa ikastera.

Erregional mailako Altsasuk Izarra hartuko du

Emakumezkoen erregional mailan Zaramonak 5 eta 0 irabazi zion Altsasuri. Sailkapenean Berriozar da lider (94 puntu) eta 2. mailara igo da. Altsasu 14.a da (25 puntu). Larunbatean Altsasuk Izarra hartuko du, 15:30ean, Dantzalekun.

FUTBOLA Erregionalean Altsasuk Lezkairuren kontra galdu du

Asteburuan erregional mailako igoera faseko 17. jardunaldia jokatu zen. Nahiz eta Altsasuk gogoak jarri eta ongi borrokatu, Lezkairuk lortu zuen garaipena. Lezkairuko Baraibarrek bi gol sartu zituen segidan, eta atsedanaldia baino lehen Floresek Altsasuren aldeko gol bat sartzea lortu zuen. Tamalez, bigarren zatian Morenok Lezkairuren hirugarren gola sartu zuen eta markagailua ez zen gehiago mugitu.

Sailkapenean Itaroa Huarte dago buruan, 37 punturekin. Altsasu zortzigarrena da (15 puntu), igotzeko aukerarik gabe. Asteburuan Itaroa Huarte liderra hartuko dute Dantzalekun.

KARATEA Irurtzungo Karate Txapelketa bihar jokatu da

Shotokan taldeak antolatuta, larunbatean, 16:30ean, 28. Irurtzungo Karate Txapelketa jokatu da Irurtzungo kiroldegian, Trinitate festen barruan. Duela urte asko iritsi zen karatea Irurtzuner eta jarraitzaile asko ditu. Txapelketarekin, ikasturtean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ederra izango dute gure karatekek.

PILOTA Joseba Ezkurdia, Buruz Burukoan brontzezkoa

Igandean Buruz Buruko hiru garren eta laugarren postuak erabakitzeako partida jokatu zuten Joseba Ezkurdiak eta Daniel Elezkanok Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Buruz Buruko finalerako ez sailkatzearen arantza atera nahi izan zuten bi pilotariek.

Partida hasi eta zazpiko berdinketaren ondoren, Ezkurdia tartea ateratzen hasi zen eta 16 eta 12 aurreratu zen, baina Zaratakokoak ez zuen etsi, 8 tantu egin zituen jarraian eta 16 eta 19 aurreratzea lortu zuen. Ezkurdiak ongi eutsi zuen, 21era berdintzea lortu zuen eta garaipenaren tantoa egin zuen, Buruz Buruko hirugarren postua lortuz.

Kirolariak solasean

KIROLDEGIA Ostiralean, Sutegiko kirol asteburuaren barruan, Sutegik eta Domingo Badoseko Euskara Batzordeak Sakanako kirolari euskaldunen mahai ingurua antolatu zuten. Iñaki Berastegi kazetariak zuzendutako saioan, Izaskun Beunza, Maialen Aramendia, Ainhoa Mazkian, Aitor Zubietta eta Joseba Ezkurdia aritu ziren solasean, Clinkerren.



OLATZ ETXAGIBEL

Irurtzungo pilota txapelketa: onenen txanda

PILOTA Bihar, larunbatean, 17:15ean, XXVI. Irurtzungo Pilota Txapelketako finalak jokatu dira

Bihar, Irurtzungo Trinitateko festetan, XXVI. Irurtzungo Pilota Txapelketa nork irabazi duen jakingo da. Martxoaren 31n hasi zen afizionatuen mailan izen handia duen txapelketak eta ordutik 12 bikote lehiatu dira 22 urtez azpiko mailan eta 24 bikote senior mailan.

Gorriti finaletik kanpo

Aurreko asteburuan finalerdiak jokatu ziren eta, tartean, seniorretan Gorriti uhartearra txapelketatik kanpo geratu zen. 3. eta 4. postua erabakitzeko partidarekin konformatu beharko du uhartearrak.

Finaletan, 22 urtez azpian Nazabalek eta Arbizuk Canabal eta Cordon izango dituzte aurkari. Eta seniorretan Alberto Ongay satrustegierra da gure ordezkari bakarra. Gorrotxategirekin batera, Labaka eta Telletxea izango dituzte aurkari. Ea txapelak Sakanan geratzen diren.



Bizikleta ibilbidearekin hasiko da eguna. Gero auzatea, jokoak, material trukea eta tailerra izango dira.

Mank-en bizikleta festa igandean Olaztin

TXIRRINDULARITZA Mankomunitatearen bizikleta festa eta ibilaldi berezia igandean ospatuko da, 9:30etik aurrera, Olaztin. Bizikleta ibilaldia, jolasak, kirol material truketa eta bizikleta konpontzeko tailerra izango dira

Altsasuri, Irurtzuni eta Etxarri Aranatzi lekukoa hartuz, aurten Olaztiko Sarasate hartuko du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak antolatutako bizikleta festa. Horretarako, Olaztiko Udalaren, Barranka Txirrindularitza Taldearen, Berri Bikes eta Muruzabal

bizikleta denden eta Sakanako ikastetxeen eta guraso elkartearen laguntza izan du Mank-ek.

Adin guztietarako antolatu dute bizikleta festa, baina 10 urtetik beherakoek nagusiek lagunduta parte hartu beharko dute. Besteak beste, iganderako 2 orduko bizikleta ibilaldia, auzatea eta kirol materialaren trukea eta herri jolasak eta bi-

zikleta konpontzeko tailerra antolatu dira, azken hau Berri Bikes eta Muruzabal denden esku.

7 km-ko ibilaldi polita Olazti eta Ziordia artean

Maiatzeko bizikleta ibilaldi berezian ezingo da parte hartu aurretik izena eman gabe (Mank-en, 948 464 866)– eta mendiko

Bizikleta festa Olaztin

Igandean, Olaztiko Sarasate plazan

- **9:30** Bizikleta ibilaldia Olazti eta Ziordia artean. 2 orduko bizikleta ibilbide erraza. Bukaeran partaide guztien artean opariak zozketatuko dira.
- **11:30** Auzatea eta kirol materialaren truke (patinak, raketak, bizikleta, patinetea, pala, baloiak, esku pilota, eskiak...).
- **12:00** Herri jolasak (zapiak, koxkolak, soka saltoa, munduko jolasak...) eta bizikleta konpontzeko tailerra.

Irurtzungo Txapelketa

Finalak

- **22 urtez azpian:** Nazabal-Arbizu / Canabal-Cordon
- **Seniorrak, 3. eta 4.:** Iriarte-Sarasa / Olazabal-Gorriti
- **Seniorrak:** Ongay-Gorrotxategi / Labaka-Telletxea

Finalerdien emaitzak

- Nazabal-Arbizu 22 / Bastarrika-Garmendia 4
- Canabal-Cordon 22 / Mugiro-Agirre 10
- Ongay-Gorrotxategi 22 / Iriarte-Sarasa 10
- Olazabal-Gorriti /12 Labaka-Telletxea 22

Osasuna Magna: play-offei agur

ARETO FUTBOLA

Osasuna Magnarendako bukatu da denboraldia. Jaenen kontrako play-offetako final zortzirenetako 3. partidaren, bana berdinduak zeudela, arbitroak falta seinalatu zion Esevenriri eta Jaenek 2 eta 1 irabazi zuen, penaltiz. "Esevenrik ez zuen Jaeneko jokalaria ukitu. Oso triste gaude, horrela kanporatu gaituztelako" azaldu zuen Imanolek.





Jose Luis Beraza oso kontentu dago Zazpimendiko proba absolutua irabazi izanagatik. UTZITAKOA

Zazpimendi, Jose Luis Berazarendako

MENDI LASTERKETAK Uharteko korrikalariak BHZ Menditraileko distantzia gogorrena egiteko (44 km) 4 ordu eta 46 minutu behar izan zituen eta merezimendu osoz irabazi zuen traila

Igandean Atarrabiak BHZ Menditrail lasterketa hartu zuen, hiru modalitateetan: Zazpimendi (44 km), Hirumendi (28 km) eta Bimendi (13 km). Guztira 439 korrikalarik hartu zuten parte, eguzkia lagun.

Zazpimendi proba aurten estreinatu zen eta 44 korrikalari sailkatu ziren. Jose Luis Beraza beterano uhartearrak sekulako ikasgaia eman zuen eta bakarrik

iritsi zen helmugara (4:46:06), bigarrenari, Aitor Iraizoz, 6 minutu pasa aterata (4:52:35). Uharteko Arakilgoa ikusgarri aritu zen. "Oso proba polita da, baina gogorra egiten da. Ezkaba igo baino lehen bi korrikalari nituen aurretik. Helburua euren begi bistan izatea zen, Ezkaban gora aurreratu ahal izateko, eta horrela gertatu da. Izugarri disfrutatu dut eta oso pozik nago

proba absolutua irabazi izanagatik" azaldu zuen. Aipatzekoa da ere Gorka Santesteban etxarrendarra laugarrena sartu zela (4:57:50).

Hirumendin (28 km) 144 korrikalari sailkatu ziren, Ion Sola (2:14:46) eta Leire Baraibar (2:43:18) buru zirela. Joxeja Maiza etxarriarra 10.a sartu zen (2:39:01) eta Alberto Razkin etxarriarra 11.a (2:39:02). Eta Bimen-

di lasterketa (13 km) 222 korrikalarik osatu zuten, Aritz Otegi (1:03:37) eta Amaya Vicente (1:17:33) aurretik zirela. Migel Angel Asurabarrena lakuntzarra 9.a sartu zen (1:08:46).

Goizutrail

Larunbatean Goizutrail proba laburrean (10 km) 116 korrikalari lehiatu ziren eta David Mutiloa irurtzundarra seigarrena sartu zen (55:46), Ibon Arregi 17.a (1:00:19) eta Migel Angel Asurabarrena 74.a (1:13:06).



Aurreko urteko igoera. AITZIBER IRAGI

V. Trinitateko igoera bihar jokoan Irurtzunen

MENDI LASTERKETAK Bihar, larunbatean, 10:00etan hasiko da proba, aska-plazatik

Guan Taldeak, Irurtzungo Udaren eta Oreka eta Bi Sisters babesleen laguntzarekin, V. Trinitateko Igoera antolatu du bihar, maiatzaren 26an, larunbatarekin. Korrikalariak goizeko 10:00etatik aurrera aterako dira banaka-banaka, aska-plazatik, baina dortsalen banaketa goizeko 9:30ean hasiko da. Askako-plazatik Ergako Trinitate ermitara igo beharko dute -3 km eta 500 metro positibo- eta euren ahalegina kronometraturako du antolakuntzak. Atzo itxi zen igoeran izena emateko epea (669 306 937). Bukaeran bertaraturako guztiendako otamena izango da Ergako gainan.

Aurreko urtean 60 mendi korrikalarik hartu zuten parte Ergako Trinitateko Igoeran eta ikusle asko bildu ziren hango maldetan, korrikalariak animatzera. Gorka Sarasibar (23:36) eta Edurne Vicente (28:30) izan ziren azkarrenak.

Igandean, Zegama-Aizkorri

Igandean mendi maratoi ezaguenetakoa jokatu da, Zegama-Aizkorri (42 km). Bertako maldetara milaka zale gerturatuko dira, animoak emateko asmoz. Bertan parte hartzeko dortsala lortzea zaila da, baina sakandarrak lanean izango dira.

Aitor Alberdi txapeldun kadeteen Villatuertako proban

TXIRRINDULARITZA Hirugarrena Unai Aznar izan zen. Juniorrak Arabako Itzulian aritu ziren

Larunbatean kadeteen mailako lasterketa jokatu zen Villatuertan (52 km). Esprintean, azkarrena Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Aitor Alberdi izan zen (1:27:27). Top-ten sailkapenean 5 txirrindulari talde sakandarrak ziren. 3.a Burundako Quesos Albeniz taldeko kadeteak, El Royon, bertakoak baitira euren taldekide Antonio eta Mateo Gonzalez. Hugo Aznar 2.a sailkatu zen, Unai Aznar 5.a eta mendiko irabazlea, Iker Mintegi 10.a, Antonio Gonzalez 11.a, Jon Chamorro 46.a, Migel Gil

(Q.A.) 35.a, Sergio Lopez (Q.A.) 39.a, Mikel Lizasoain (I.I.) 55.a eta Oihan Etxeberria (Q.A.) 59.a. Talde onena Intersport Irabia izan zen.

Bestalde, igandean Sorian lehiatu ziren Burundako Quesos Albeniz taldeko kadeteak, El Royon, bertakoak baitira euren taldekide Antonio eta Mateo Gonzalez. Hugo Aznar 2.a sailkatu zen, Unai Aznar 5.a eta mendiko irabazlea, Iker Mintegi 10.a, Antonio Gonzalez 11.a, Jon Chamorro 46.a, Migel Gil



Aitor Alberdi, Villatuertako helmugan, besoak jasota. MARTIN EARLY

50.a eta Oihan Etxeberria 62.a. Talde onena, altsasuarra.

Juniorrak Arabako Itzulian

Asteburuan junior mailako Arabako Itzulia jokatu zen, 3 etapa-

ko proba. Jokin Murgialdaik irabazi zuen itzulia (4:46:50). Sailkapen orokorrean Intersport Irabia taldeko Inhar Astitz 43.a sailkatu zen eta Beñat Etxezarreta 44.a, biak 12:37ra.



Etxarriko proba berezia da, binaka parte hartzen delako.

Etxarri Aranatzten binaka ariko al gara korrikan?

ATLETISMOA Andra Mari ikastolaren V. Binakako Lasterketa-Naparpellet Saria jokatu da bihar

Andra Mari ikastolaren V. Binakako Lasterketa, Naparpellet Saria bihar jokatu da, larunbatean, Etxarri Aranatzten, 19:00etatik aurrera. Lasterketa-ekin familian parte hartzearen balorea sustatu nahi da, hau da, familia, jarduera fisikoa eta parte hartzea uztartzea, eta, bestetik, helburu ekonomikoa du, ikastolarendako sostengua lortzea.

5 maila, sokatira eta auzatea

5 kategoria ezberdinetan jokatu da bikotekako lasterketa hau, Haur Hezkuntzako umetatik hasita, helduetaraino. Haur bakoitzak heldu batekin parte hartu ahal izango du eta L.H.-ko 5. eta 6. mailakoek, aldiz, nahi duten bezala moldatu ahalko dituzte bikoteak. Iaz hasitako biderei jarraiki, 2 eta 4 urte bitarteko haurrek lasterketa berezia egingo dute, haien moto txikietan osatuko baitute Molto lasterketa.

Guztira 5 lasterketa jokatu dira. Giroa berotzeko, bikote parte-hartzaileek argazkia ateratzeko aukera izango dute eta auzatea eta beste izango dira. Aipatzekoa da LH 5. mailatik gorako artean taldeka izena emanez gero, Urbasa Abentura parkerako sarrerak zozketatuko direla.

Zozketan parte hartzeko 8ko taldeak osatu beharko dira. Eta 18 urtetik gorako bikoteek ere Borda jatetxean afari bateko zozketan parte hartuko dute. Bukaeran sokatira erakustaldia

eginen da; irakasleak ikasleen kontra.

Aurreko urtean 250 partaide inguru izan zituen Binakako Lasterketa-Naparpellet Sariak.

Alboan

DBHko ikasleekin lortzen den diru sarrera Alboan Gizarte Kanpoko Erakundeari emango zaio, *Zeure mugikorrak ezkutatzen duena* kanpainarako, gatazka-mineralen ondorioak jasaten ari diren Kongoko herri-tarrei laguntzeko helburuarekin (<https://www.tecnologialibre-deconflicto.org/eu/>).

Andra Mari Lasterketa

Binakako lasterketa-Naparpellet Sariko egitaraua

Binakako lasterketa

- **19:00** 2-4 urteko Molto Lasterketa (100 m)
- **19:15** Haur Hezkuntza (200 m)
- **19:30** Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak (400 m)
- **19:40** Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak (800 m)
- **20:00** Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera (1.609 m)
- **Ondoren** Sokatira: Irakasleak vs ikasleak

Bakaikun jokatu da XIV. Aitzkozar lasterketa

ATLETISMOA Bihar, larunbatean, 17:00etan kategoria txikiko probak hasiko dira eta 18:30ean, proba nagusia (8,1 km). Bakaikuko proba Sakanako Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarria den bigarren lasterketa da

Ziordiko herri krosari lekukoa hartuta, bihar XIV. Aitzkozar herri lasterketa jokatu da, Iturmendiko Aitzkozar eta Bakaikuko Bakarretxoea elkarteek antolatutakoa, Dantzaleku Sakanaren eta hainbat babesleren laguntzarekin. Aurreko urtean Iturmendi izan zen abiapuntu eta helmuga, eta, hortaz, aurtan Bakaikun burutuko da proba.

Hasteko, txikienak

Lehenik eta behin txikien probak jokatu dira. 17:00etan hasita, aurrebenjaminak (450 m), benjaminak (560 m), kimuak (800 m), haurrak (1.600 m) eta kadeteak (2.400 m) Bakaikun prestatutako ibilbideetan lehiatuko dira.

Ondoren, 18:30ean, jubenilen eta nagusien txanda helduko da, orduan abiatuko baita proba nagusia. Ibilbidea betikoa izango da. Iturmendi eta Bakaiku artean prestatutako zirkuituari bi buelta emanda, guztira 8,1 km osatuko dituzte. Jubenilek zirkuituari buelta bat emango diote (4.05 km). Bakaikuko lasterketa Sakanako Kopa-Lasa Kirolak sarirako puntuagarria den bigarren proba da. Proban sailkatzen diren lehen sakandarrak, gizonezkoak eta emakumezkoak, puntuatuko dute.



Korrikalariak aurreko edizioetako batean, Bakaiku eta Iturmendi artean. ARTXIBOA

Auzatea, oroigarria eta sari ematea

Ibilbide gorabeheratsua osatu eta gero, sari ematea izango da. Partaide guztiek oroigarria jasoko dute eta lehendabiziko hirurek trofeoa. Eta, jakina, auzatea egongo da bildutako guztiendako.

Aurreko urtean guztira 145 korrikalarik hartu zuten parte XIV. Aitzkozar herri lasterketan, 75 kategoria txikietan eta 70 proba nagusian. Azken honetan Javier Cabezón (29:54) eta Mari Sol Aspurz (38:49) iruindarrak

gailendu ziren, Raul Audikana olaztiarraren (30:12) eta Ginesa Lopezen (39:02) aurretik.

Izena emateko

Aitzkozar proban aritu nahi dutenek, oraindik badute izena emateko aukera. Horretarako, Bakaikuko Bakarreko Etxea elkartera jo beharko dute, lasterketa hasi baino ordu bat lehenago, eta bertan inskripzioa bete. Edo 948 562 034 edo 606 398 802 telefonoetara deitu daiteke. Helduek 5 euro ordaindu beharko dute; haurrek, dohainik.

Sakandarrak Nafarroako Txirrindularitza Itzulian

TXIRRINDULARITZA Ormazabal, Villar eta Juango sakandarrak dabilta Itzulian, baita Rural Kutxa ere

Asteazkenean hasi zen eta larunbatean despidituko da afizionatuen mailako Nafarroako Itzulia proba ezaguna. Rural Kutxa talde sakandarrak gain, Asier Ormazabal (Lizarte), Pablo Villar (Telcom) eta Odei Juango

(Telcom) sakandarrak ari dira lehian.

Guztira 21 talde dabilta Nafarroako Itzulian. Asteazkeneko erlojupekoak zabaldu zuen proba. Atzo Lodosan hasi eta Azagran despiditu zen etapa jokatu

zen (148,5 km), eta gaur, ostira-lean Agustinos industrialdean hasi eta Altzuzan, Oteiza museoa despidituko den proba jokatu da. Azkenik, bihar, larunbatean, Sarriquiren hasi eta lehen mailako Muskildako gainean bukatuko da azken etapa.

Atzoko emaitzen faltan, asteazkeneko erlojupekoa Lotto taldeko Ruben Apersek irabazi zuen (6:11). Asier Ormazabal lehen nafarra izan zen, helmugan 12.a, Pablo Villar 37.a eta Odei Juango 95.a.



Eguraldia lagun, giro polita eta solidarioa izan zen larunbatean Ziordian. UTZITAKOA

Nagore eta Beunza txapeldunak Ziordian

ATLETISMOA V. Ziordiko Herri Krosa proba solidarioa irabazi zuten. Txikien kategoria, proba herrikoia eta proba nagusia kontuan hartuta, 400 korrikalari inguruk parte hartu zuten Sakanako Atletismo Koparako baliagarria zen proban

Eguraldia lagun eta primerako giroan jokatu zen, larunbatean, Ziordiko Running taldeak 127 babeslerekin batera antolatutako V. Ziordiko Herri Krosa proba solidarioa. Proba Sakanako XV. Atletismo Kopa-Lasa Kiro-lak Saria txapelketarako baliagarria zen.

Hasieran, eta primerako giroarekin, kategoria txikiko pro-

bak hasi ziren. 2011 urtetik gora jaiotakoek plazari buelta bat eman zioten (150 m), 2010 eta 2009 urteen artean jaiotakoek bi buelta (300 m), 2008 eta 2007 urteetan jaiotakoek hiru buelta (450 m) eta 2006 eta 2005 urteetan jaiotakoek lau buelta (600 m). Guztira 185 neska-mutiko zeuden izena emanda. Ondoren, 17:30ean, 2 km-ko proba herrikoia abiatu

zen. Gutxi gorabehera 30 korrikalari animatu ziren, eta herrikoia zenez, ez zen sailkapenik egin.

Eta 18:00etan helduen txanda izan zen. Ziordian prestatutako zirkuitu ederrari hiru buelta eman behar zioten korrikalariak, guztira 6,8 km osatuz. Proba herrikoia eta proba nagusia kontuan hartuta, 241 korrikala-

ri inguruk hartu zuten irteera, eta horietatik 168 sailkatu ziren. Lasterketa polita izan zen, baina irabazleak, Javier Nagorek, ez zuen areriorik izan (23:40) eta 40 segundo atera zizkion Pablo Lassari (24:20). Pablo Romerok osatu zuen podiuma (24:23). Lehen sakandarra Patxi Cano altsasuarra izan zen, helmugan 12.a (27:12).

Emakumezkoetan, aldiz, protagonista sakandarra izan genuen, Izaskun Beunza (28:55). Olaztiarrak ia bi minutu atera zizkion Delia Sampedrori (30:42). Erkuden San Martin etxarriarra hirugarrena izan zen (32:20).

Korrikalariak opari poltsa jaso zuten eta antolakuntzak zenbait zozketa egin zituen. Horretaz gain, guztiendako auzate ederra izan zen elkartean eta lehen hiru sailkatutakoek, emakumezkoek eta gizonezkoek, saria jaso zuten. Beste behin, arrakastatsua izan zen herri krosa, bai kirolaren aldetik baita alde solidarioaren aldetik ere.

2.000 kilo elikagai, 75 errotulagailu kilo eta 1.400 euro Guatemalarako

Izan ere, Ziordikoa herri lasterketa solidarioa da. Aurten hiru ekimen lagundu zituen.

Batetik, izena ematerakoan inskripzioa ordaindu beharrean, elikagaiak eraman behar zituzten korrikalariak –kategoria txikikoek 2 kilo elikagai, gutxienez, eta helduek 4 kilo elikagai, gutxienez–, Paris 365 jantoki soziala laguntzeko. Ziordiko Running taldeko Jose Ramon Ramirezek adierazi digunez, guztira 2.000 elikagai kilo inguru jaso dituzte, aipatu jantoki sozialera bidaliko direnak.

Horretaz gain, Dravet sindromea fundazioak postua jarri

zuen Ziordian. “75 kilo errotulagailu erabili jaso genituen. Horretaz gain, Dravet fundazioak zozketa egin zuen eta 3.000 euro lortu zituen, datu oso pozgarria” gaineratu du Ramirezek.

Guztiok irabazle

Azkenik, “Y os lo cuento” izeneko proiektuak sustatzen duen Iruñeko Xabi Luna suhiltzailea Ziordian izan zen, Guatemalako eskola bat sustatzeko proiektua aurkezteko. Sariz betetako saskia zozketatu zuten eta 1.400 euro inguru bildu zituzten, Guatemalako eskolara bideratuko direnak.

“Guztion artean, korrikalarien, antolatzaileen eta babesleen artean, lortu dugu. Guztiok gara irabazle” nabarmendu zuen Ramirezek, babesleak eta herritarrek egindako lana eskertuz.

Ziordiko Herri Krosa (6,8 km)

Sailkapen osoa: <https://ziordirunningtaldea.wixsite.com/ziordirunning/clasificacion-2018>

Gizonak

1. Javier Nagore:	23:40
2. Pablo Lassa:	24:20
3. Pablo Romero:	24:23
4. Iker de Arriba:	24:30
5. Jon Ander Cabero:	24:53
6. Daniel Martinez:	25:00
7. Jorge Alonso:	25:12
8. Mikel L. Goikoetx.:	25:25

Emakumeak

17. Izaskun Beunza:	28:55
28. Delia Sampedro:	30:42
38. Erkuden S. Martin:	32:20

Flores, berriz Espainiako lider

AUTOMOBILISMOA Espainiako Mendi Txapelketarako baliagarria zen 3. proban, 47. Fitoko Nazioarteko Igoeran, Garikoitz Flores lakuntzarrak (BRC B49) erakustaldi ederra eman zuen eta 2. kategoriako txapelduna izan zen (2:551). Horrela, Espainiako Mendi Txapelketako 2. kategoriako lidergoa berreskuratu du lakuntzarrak (67 puntu).



UTZITAKOA

IRRISTAKETA Iratxe Lapuente kimuetan lehena Antsoainen

Larunbatean IX. Gazte Berriak Irriistaketa Trofeoa jokatu zen Antsoainen, eguraldi ederrarekin. Sakana Patin taldeko Gaizka Flores Marin olaztiarra hirugarrena sailkatu zen gizonezkoen aurrebenjamin milan, eta emakumezkoen kimuen mailan bere taldekide Iratxe Lapuente Perez ziordiarrek irabazi zuen lasterketa.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 25

ALTSASU Dantzariak kalera. Irantzu Dantza Eskolako ikasleen emanaldia. 19:30etan, lortia zabalgunean.

ALTSASU Errepresioaren aurrean elkartasun internazionalista! elkarretaratzea. Sakanako Askapena. 19:00etan, udaletxe aurrean.

IRURTZUN *Todos los musicales o casi* ikuskizuna. Demode Quartet taldea. 21:00etan, kultur etxean.

SAKANA Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uhartar Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *La casa torcida* filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 26

ALTSASU Orbea Gran Fondo Vitoria itzulua 181 km-ko joan-etorria eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepede atalekoak. 08:00etan, San Juan plazatik.

ETXARRI ARANATZ Haurren eguna. Antolatzailea: EGA. 11:00etatik aurrera, plazan.

ALTSASU *Europear Batasunean burujabe?* Mahai ingurua.

Askapena VIII. Formakuntza saioak. 11:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU *Pensiones dignas hemen eta orain* manifestazioa. Plataforma pensionistas 22F, Pentsionistak martxan eta sasoia taldeak. 12:00etan, Foruen plazatik.

SAKANA *Tren sozialari bai. AHTri ez.* Sakana Trenaren Aldek kontzentrazioak deitu ditu. Ikus 10. orria. 15:45etik 16:20ra 9 tren galekutan.

ALTSASU *Inperialismoak baditu milaka aurpegi* mahai ingurua. Askapena VIII. Formakuntza saioak. 17:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ARBIZU Etxarri Aranazko abesbatzaren kontzertua koru txikiaren parte-hartzearekin. 19:00etan, elizan.

ETXARRI ARANATZ Andra Mari ikastolaren V. Binakako lasterketa. Napapellots saria. Andra Mari ikastolak antolatuta. 19:00etan, plazan.

ALTSASU *Madres y pasotas* antzezlan. Tarima Beltza. 19:30etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 27

OLAZTI Maiatzeko ibilaldi berezia. Sakanako Mankomunitatea. Ikus 15. orria. 9:30etatik aurrera, Sarasate plazan.

ETXARRI ARANATZ Musika plazan: Manex eta kobreak

taldearen kontzertua. 19:30etan, plazan.

ALTSASU *La casa torcida* filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 28

ALTSASU Euskaraldia prestatzeko bilera. 17:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. Otsailak 22 plataforma eta Pentsionistak Martxan. 19:30etan, udaletxe parean.

ASTEARTEA 29

ALTSASU *El muro marroquí en el Sahara Occidental* liburuaren aurkezpena. 19:00etan, Haritza tabernan.

ASTEAZKENA 30

ALTSASU Juul 2018 literatura-hauteskunde kanpainaren egile bozkatuenei saria emateko ekitaldia. NIE eta Iñigo Aritza Ikastola. 18:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Sukaldaritza tailerraren kata. SGA. 19:00etan, Iratxo elkartean.

OSTEGUNA 31

ALTSASU *Campeones* filma. 19:00etan, lortia kultur gunean.



IRURTZUN *Jokin Kaleren margolanak* erakusketa. Maiatzaren 10etik garagarriaren 11ra arte. Pikuxar Euskal Txokoan.



ALTSASU. Artea oinez'18 erakusketa, Oinez Fundazioak eta Iñigo Aritza ikastolak antolatuta. Garagarriaren 2ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:00etik 21:00etara, lortia kultur gunean.



ZIORDIA Book face erakusketa. Garagarriaren 1era arte, arratsalde, liburutegian.

ZORION AGURRAK



Mari Cruz Mundiñano Orayen Zorionak amiña poxpoliña Besarkada handi bat eta ongi pasa egune



ESKELA

Maria
Igoa Agirre

Ahizpa. Arreba. Izeba.

Betiko

2018-05-21, Etxarri Aranatz

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI-ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ERRENTAN HARTU

Sakanan etxe bat alokatzeko. Jubilatutako bi pertsona Sakanan alokatzeko terenoa duen etxe/baserri bila dabilta. Harremanetarako 695 858 729

ETXEBIZITZAK

Aukera! Pisua salgai Etxarri Aranatz. Oso argitsua, bista onekin. 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Deitu 667266746

LANA I NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Urdiango igerilekuan soroslea behar da. Lan horietan aritzeko sorosle titulua, D.E.S.A. ziurtagiria behar da. Interesatuak maiatzak 26a baino lehen aitziberelarteak@gmail.com-era bidali CV.

Urdiango udalak aisialdirako begiralea behar du. Ezinbestekoak EGA (edo baliokidea) eta monitorea titulua. Beste-lako ikasketak ere kontuan hartuko dira (magisteritza ikasketak etab.). CV-ak udalarean jasoko dira

IKASTAROK

Nola antolatu zure agiriak zerga-bete-beharrek betetzeko. Cederna-Garalurrek antolatutako tutoriala maiatzaren 28an egingen da Arbizuko industrialdeko bere egoitzan, 10:00etatik 14:00etara. Izena emateko 619 328 264 edo Sakana.admon@cederna.es

OHARRAK

Irurtzango festetako herri bazkaria. Trinitate ospakizunen barruan maiatzaren 26an herri bazkaria izanen da. Joan nahi duenak bertelak Pikuxarren eta udalarean eskuratu ditzake 12 euroren truke.

Odol-emailak. Maiatza: 30ean Etxarri Aranatz, 17:00-20:00. 28an Olazti, 17:00-20:30.

Unanuko Denok Bat elkarteak
alokatzeko da festetarako

Garagarzaroaren (ekaina) 29tik garilaren (uztaila) 1era, bi egun horiek barne.
629 76 73 55

Etxarri Aranazko irakurle taldea. Hurrengo hitzorduan Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* liburuaz hizketatuko dira. Garagarilaren 7an, 19:00etan, Etxarriko liburutegian.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Otadiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru biltoketa egiten ari dira. Ekarpinak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkartek langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pabxi) telefonoetara hots egin dezatela

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpinak 3008 0093 66 2460985811.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon la-

guntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoEneer. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

Nafarroako Eliekagaien Bankuaren alde. Diru ekarpinak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

OPATUTAKOAK I

GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udalteingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audi-fonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.eus

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria.

Galdetu prezioa.

948 564 275


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 25




Ez egonkortasuna izango da nagusi egun guztian zehar, zaparrada trumoitsoak izan daitezke noiznahi. Temperatura beroa izango dugu.

Igandea, 27



Ekaitz probabilitatea berriro haziko da gualderara. Beroarekin jarraituko dugu egun guztian zehar, batez ere eguzkia ateratzen denean.

Larunbata, 26



Hego haizearekin jarraituko dugu, baina ekaitzen probabilitatea jeitsi egingo da. Euria egingo du, baina eguzkia ere agertu daiteke.

Astelehena, 28



Goizaldean oraindik, ekaitzak egon daitezke gurean, baina egunak aurrera joan ahala, iparraldeko haizearekin euri hodeiak sartuko dira.

Zure iragarki laburra zure

Merkatu txikian

948 56 42 75

iragarki@guaixe.eus

www.guaixe.eus/iragarkiak

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Emakume baten bizitzaren komeriak

Tarima Beltza antzerki taldeak "Madres y Pasotas" antzezlan taularatuko du bihar, 19:30ean, Iortia kultur gunean. Dario Fo egilearen antzezlan baten adaptazioa da, eta komedia du oinarri: emakume baten bizitzaren pasarteak kontatzen ditu obrak.

ALTSASU

Madres y Pasotas Dario Foren *La madre pasota* antzezlanaren adaptazioa da. Asun Abadek egin zuen adaptazioa, izan ere, Foren lana monologo bat da eta Abadek monologo horretatik pertsonaiak atera zituen. *Madres y Pasotas* komedia bat da, izan ere, "Tarima Beltzakoek eskatzen dute komedia egitea", Jon Barbarin Tarima Beltzako zuzendariak azaldu duenez. Martxoan estreinatu nahi zuten, baina testuekin arazoak izan zituztenez bihar taularatuko dute estreinakoz, Iortia kultur gunean, 19:30ean. Hamargarren urtemuga ospatu du Tarima Beltza antzerki amateur taldeak.

Kutsu eta kritika soziala duen komedia bat da *Madres y Pasotas* antzezlan. Emakume batek apaiz batekin duen elkarrizketa kontatzen du. Kontatzen duen bitartean "flashback" moduan bere bizitzaren kontakizunak irudikatzen dira. "Testua hau-



Tarima Beltzako aktoreak antzezlan prestatzen.

tatzeko arazoak izan genituen. Bi proposatu zidaten, baina ez nituen ikusten. Nik beste proposamen batzuk egin nizkien, baina haiek ez zuten ikusten". Azkenean Foren antzezlanaren adaptazioa aukeratu zuten. "Da-

rio Fo lan egiteko oso esker onekoa da".

Lau emakumezko aktore eta gizonzko batentzako prestatutako antzezlan bat egin behar zuten, gainera. "Bilatu behar duzu zerbait haientzako, eta lau

emakume eta gizon bakarraren-tzako zaila da askotan. Antzerkian, beste arloetan bezala, oraindik antzezlanetan gizonzkoen pertsonaiak nagusi dira. Orain egiten diren antzezlanetan, agian, emakume pertsonaia gehiago daude". Merche Herrera, Nahikari Gonzalez, Marta Diego, Olibi Galparsoro eta Juan Manuel Herrero dira *Madres y Pasotas* antzezlan taularatuko duten aktoreak.

Flashback

Askotariko pertsonaiak daude Tarima Beltzak taularatuko duen antzezlanean. "Pertsonai dezentet daude, emakumeak bere bizitza kontatzen ari direnean flashback moduan agertzen dira pertsonaiak". Emakumeak kontatzen dituen pasarte horiek irudikatze argiak eta soinuak erabiliko dituzte, gehienbat. "Testuarekin ulertzen da ere". Protagonistaren papera egiten duten bi aktoreek ileorde berdina eramaten dute, hortaz, publikoak identifikatzen dituzte, Barbarinek azaldu bezala.

"Bi espazio oso ondo bereiz-tuta daude, argiekin bereziki. Orainaldiko momentuan aitorlekua agertzen da eta oso markatuta dago. Gero flashback horiek beste espazio batean egiten dira". Denbora saltoak ematen dira antzezlan osoan zehar, baita hainbat toki agertzen dira ere. "Emakumea gogoratzen da beste emakumeekin elkartzen

zenean manifestazioak egiteko, senarra ezagutu zuen unea, umea jaioberrria zenean, gero ezkondu zenean... bere bizitza, azkenean".

Eszenografikoki "elementu gutxi" erabiltzen dituzte, eta "baten bat nahiko surrealista da": "ez daude errealismoan oinarrituta". Barbarinek estilo "minimalista" nahiago du, izan ere, baliabide gutxiarekin espazioarekin jolastea gustatzen zaiola azaldu du. "Oso pertsonala da. Baina niri ez zaizkit dekoratu handiak gustatzen. Elementu bat ateratzen baduzu erabiltzeko da". Izan ere, "antzerkia irudimena da"; irudimenearekin jolastea, Barbarinen ustetan: "aktoreen lana da sinistartztea".

Tarima Beltza antzerki taldea Altsasuko Antzerki Tailerretik sortu zen duela hamar urte. Ordutik, sei antzezlan taularatu dituzte Jon Barbarin ihabartarraren zuzendaritzapean: *La familia Malumbres y sus farsas* (2007), *No hay ladrón que por bien no venga* (2008), *¿Habrá o no habrá función?* (2009), *Bienvenido a Girasol* (2012), *Nunca fuimos heroes* (2014) eta *Falstaff no cree en la otra* (2016). Antzerki taldeetik hamaika aktore pasa dira: Maru García, Jose Luis Liberal, Merche Herrera, Juan Manuel Herrero, Amaia Mintegi, Pili Maldonado, Maru García, Marta Diego, Natalia Martín, Eider Leoz, Nahikari Gonzalez eta Olibi Galparsoro.



UTZITAKOA

Gu gara lehoi erregeak!

Irantzu Gonzalez dantza eskolako dantzari txikiak "Rey Leon" musikaren bertsio dantzatua eskaini zuten. Sarrera guztiak agortu ziren, eta ikusleek 10 bat jarri zioten ikuskizunari. Lehoi erregea, Timon eta Pumba, zebrak eta Afrikako sabanan aurkitu daitezkeen animaliak dantzan jarri zituzten txikiak. 4 eta 11 urte bitarteko haurrek parte hartu zuten ikuskizunean. .

IRAKURRI
GOZATU
OPARITU

1001 mundu

LIBURUAK EROSTEKO 30 EUROKO
8 TXEKEREN ZOZKETA

IRABAZLEAK:

- Maitane Mendia (Irurtzun)
- Berit Izaguirre (Arbizu)
- Oihan Aldatz (Ziordia)
- Ane Arraiza (Lakuntza)
- Alfredo Álvaro (Altsasu)
- Xabier Fuste (Altsasu)
- June Garzandía (Elxarri A.)
- Joxemari Alegria (Lakuntza)

Txekeak liburutegian jaso ahal izanen dituzue



Thierry Bizkai "Manez eta kobreak" taldeko abeslaria da. UTZITAKOA



Folk musika eta metalak igandeko musika plazan

"Manez eta kobreak" taldeak emanaldia eskainiko du igandean, 19:30ean, Etxarri Aranazko plazan. Arte eszenikoek hasiera eman zioten musika plazan zikloari. Plaza "berria" mustu zuen arte eszenikoen erakusketak.

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Musika plazan zikloa aurrera doa eta igande honetarako folk musika emanaldia antolatu du herriko Kultura Zerbitzuak. *Manez eta kobreak* taldearen emanaldia igandean, 19:30ean, izanen da, plazan. Aurreko igandean arte eszenikoen erakustaldiak martxan jarri zuen igandero, garagarriaren 10era arte, plazan izanen diren emanaldiak. Erakustaldia plaza "berria" mustutzeko aitzakia izan zen ere.

Musika plazan zikloaren barruan Manez eta kobreak taldeak emanaldia eskainiko du Etxarri Aranazko plazan. Thierry Bizkai dago Manez izen artistikoaren

atzean. Hainbat taldetan aritu ondoren, *Bolbora*, *Hegaka* eta *Kalakan*, besteak beste, berak egindako kantuek aurkeztea erabaki zuen. *Kobreak* metalezko taldearekin aritzen da. Bizkairen kantuek auzolagunekin, familiarekin eta lagunekin duen harremanez hitz egiten dute.

Plaza "berria"

Arte eszenikoek mustu zuten Etxarri Aranazko plazako *zeleiy*. Plaza eta liburutegiaren artean zegoen espazioaren lurzorua berritu ondoren erabilera antzaterako espazioa sortu dute. Kultura ekitaldiak egin ahalko dira, eta horren erakusle izan zen igandean musika eta dantza

plazan zikloa ireki zuen arte eszenikoen erakustaldia. "Plaza mustutzeko zerbait berezia egitea eskatu zidan Kultur Zerbitzuak. Hortaz, zerbait kontemporaneo egitea iruditu zitzaigun", azaldu du Ainhoa Juaniz artistak.

Garazi Pascual kablearen gainean orekan aritu zen. Zirkus Blaiko kideek, Alaiak eta Iraiak, akroport eta dantza garaikideko emanaldia egin zuten. Isisek oihaletan dantza egin zuen, eta Dabixi malabaristak tenis racketekin malabareak egin zituen. Musikaz Unai Otegi arduratu zen. Pablo Jimenezek pianoa jo zuen eta Jose Ramon Rodriguez biolan aritu zen.

BAZTERRETIK
RICARDO ARETA
URRESTARATZU

Tributo taldeak

Tributo taldeen gorakada bizi izaten ari gara eta gorakada diot, hau berria ez delako. Mota honetako taldeak beti egon izan dira. Jatorrizko musika taldearen onspena zutenak ere baziren.

Egun, musika aretoek mota honetako musika talde ugari hartzen dituzte eta sarrerak agortzen dira.

Musikari profesionalen multzoan mota guztietako iritziak daude, baina orokorrean jatorrizko musika taldea ez da fenomeno honekin oso eroso sentitzen. Batzuk halaxe azaltzen dute sare sozialetan eta tributo taldeetan lan irteera topatu duten beste profesionalen erantzunek jarrera kontrajarriak sortzen dituzte, eztabaida deskalifikazioetara iristen delarik.

Baina, zergatik? Nondik dator musika fenomeno hau?

Musikariek, berez, entzuten duten musika bertsionatzeko joera izaten dute. Euren ikaskuntza eta garapen prozesuaren zati bat da. Elkarrizketetan, eraginei buruzko erantzunetan, guztiek, ibilbide diskografiko bat duten taldeak edota bakarlariak aipatzen dituzte, ez armoniako irakaslea.

Tributo taldeak musika genero bat bezala hartzen baditugu, garapen bati buruz hitz egin dezakegu. Musika estilo bat ez da goizetik gauera sortzen. 70.hamarkada rockak, 80.hamarkadako heavya ekarri

zizun eta, askoren iritziz, dena kotoi plantazioetan sortu zen; bluesetik dator.

Euskal Herrira itzuliz, hemen bertsionatzaille petoak izan garela agerikoa da.

Festetako taldeek, folklorea jotzeaz gain, garaian garaiko arrakasta handiko abestiak gehitu behar izaten dituzte euren erreperatorioan. "Egan" taldea aitzindarietako bat da lan honetan, beste talde batzuen abestiak hartu eta letra euskaratuz: UB40ren Red Red Wine, John Denver, The Eagles, Linda Rondstadt, Simon and Garfunkel edo Bob Marley.

Tapia eta Leturiak, panderoa eta trikitixa bikoteak musikari talde oso batekin uztartu zuten. Erreperatorio urriaren aurrean, "tex mex" abestietara jo zuten eta estilo berri bat sortu zuten Flaco Jimenez bertsionatuz.

Proiektu pertsonalago bat eta euren abestiak sortu arren, bertsioen eragin oso nabaria izan duten taldeak aurkitzen ditugu. Sarri Sarri Kortaturen abesti adierazgarriena da eta Jamaikatik iritsi zen, Toots and the Maytals-en eskutik. Potatorekin hainbeste entzatu izan dugun "Miguelin el Kasero", jatorriz, Byron Lee-rena da. Hertzainak taldeak ere The Clash taldearen abestietara jo zuen.

Bertsioek sortzen ari diren taldeei ikusgarritasuna ematen diete eta talde berrien promozioan paper garrantzitsua jokatzen dute. Entzuleek gustuko dituzten abestiak entzun nahi dituztelako onartzen dituzte eta festa eta dantzaldieta halaxe izan da beti.

Emanaldi handia

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako ikasleek ikasturte amaierako emanaldia eskaini zuten astelehen arratsaldean. Emanaldia Burunda pilotalekuan egin zuten. Ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten gazteek. Hurrengo emanaldia *Estereotipoak hausten*, berdintasunaren aldeko kontzertua izanen da, garagarriaren 4an, lortia kultur gunean.



Auzmendiren dantza musika

Mikel Auzmendi etxarriarrak gitarra kontzertua eskaini zuen herriko kultur etxean. Dantza musikaren errepaso historikoa egin zuen gitarraren bidez.

Goi mailako musika ikasketen azken mailan dago Auzmendi, eta ikasketak amaitzeko lana aurkeztu zuen Aumendik larunbatean. Gitarra jo ez ezik, abestien aurkezpena egin zuen ere.



Musikalen musikala ahots hutsean, Irurtzunen

Demode Quartet a capellako laukoteak gaur, 19:00etan, 'Todos los musicales o casi' eskainiko du kultur etxean

IRURTZUN

Garai guztietako hogeitik gora musikal ezagunen bertsioa eginen du Demode Quartet taldeak, Irurtzunen, *Todos los musicales o casi* ikuskizunean. Emanaldia gaur izanen da, 21:00etan, kultur etxean. Ahots hutsez musikalen bertsio dibertigarria eta originalak interpretatuko dituzte. A capella abesten duen laukotearen hirugarren ikuskizuna da. Euskal musikaren ibilbide dibertigarria eta desberdina eta musikaren historiaren errepasoa egin ondoren, musikalen mundua

bertsionatzera ausartu dira: *Jesus Christ Superstar*, *Hair*, *Rey Leon*, *Cabaret*, *Mary Poppins*, *West side story*...

Lau pertsonaia interpretatzen dituzte, hortaz, bakoitzak musikaletan ematen diren izaera bat azaleratzen dute: musikalen negozioan tokia bilatzen duena, aitortzarik izan ez duen musikal abeslari aditua, musikalen bitxikeriak ezagutzen dituen abeslari gogotsua eta moldakorra, eta ahoa zabaltzen duen bakoitzean bere kideak nahastu eta despistatzen dituen.

Etxarri Aranazko Abesbatzak elkarrekin

ARBIZU

Etxarri Aranazko Abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, maiatzaren 26a, 19:00etan, Arbizuko elizan. Abesbatza ez da bakarrik ariko, harrobia izanen da haiekin: abesbatza txikia. Egitarau osatua prestatu dute biharko emanaldirako.

Betiko abestiak, euskal abestiak, baita Disney ekoiztetxeko abestiak ere abestuko dituzte. *Da Pacem Domine* abestiarekin irekiko du kontzertua Abesbatzak. *The Lamb*, *Kitolis*, *Iruxito* eta *Ama Begira zazu* abestiak interpretatuko dituzte ondoren. Abesbatza Txikiaren laguntzarekin Mary Poppins musikaren *Chim Chim Cheree* eta *Con un poco de azucar* abestuko dute, baita *Akai Hana*, *Bonse Aba*, *Cubanita* eta *Itsasoa gara*. Hainbat motako musikarekin amaituko dute kontzertua: *Agnus dei*, *Frozen Choral Suite*, *Errota zaia*, *Gure Dantza*, *Aunitz urtez* eta *Por esto cantamos juntos*.

Abesbatza Txikiaren hurrengo emanaldia garagarriaren 3an izanen da, 18:30ean, Etxarri Aranazko Andra Mari elizan.

San Juan festak iragartzeko kartelaren bila

ARBIZU

Festak iragartzeko kartel lehia-keta martxan jarri du Arbizuko Udalak, San Juan festekin zerikusia duten gaiak irudikatu behar dituzte proposamenek. Lan guztietan "Arbizuko San Juanak 2018 ekainaren 23tik 29ra" testua agertu beharko da.

Bi maila daude: helduak eta haurrak. Helduen mailan proposamenak A3koak izan behar dira eta edozein teknika erabili ahal da. Gehienez hiru lan aurkeztu daitezke. Haurren mailan kartulina batean aurkeztu behar dira proposamenak eta nahi duten materialak erabili daitezke. Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailan ikasten ari diren haur arbizuar guztiek parte hartu dezakete. Plika sistema erabili behar da proposamenak aurkezteko.

Lanak Udaletxeko idazkari-tzan, goizez, eta liburutegian, arratsalde, aurkeztu behar dira garagarriaren 12ko 14:00ak baino lehen. Helduen mailan 150 euroko sari bakarra izanen da, eta haurren mailan margoitzeko materiala. Arbizuko zinegotziek osatuko dute epaimahaia.

Josefina Arregiren historia Gayarren

Altsasuko Josefina Arregi klinikan oinarrituz Ortzadar Euskal Folklore Elkarteak 'Ahanzturaren lorratza' ikuskizuna sortu du. Bihar Gayarre Antzokian mustuko du, 20:00etan. Irabaziak Altsasuko klinika psikogeriatricoarendako izanen dira

ALTSASU

Dementzia gaitzak pairatzen dituzten pertsonen jasaten dituzten pasarteak, sintomak eta ahanzturak irudikatuko ditu Ortzadar Euskal Folklore Elkarteak *Ahanzturaren lorratza* ikuskizunean; izenburuak adierazten duen bezala "ahantzuraren estelak" irudikatu dituzte. Elkarteko kideek sortu dute ikuskizuna. Bihar, 20:00etan izanen da emanaldi bakarra, Iruñeko Gayarre Antzokian. Momotxorroak ikuskizunaren parte izanen dira.

Sarrerek 10 eta 14 euro bitarteko prezioa dute. Josefina Arregi klinikan, eta Gayarre antzokiko leihatilan eta webgunean lortu daitezke. Zero lerroa dago; hau da, emanaldira joan gabe diru ekarpena egiteko aukera dago. Irabazi guztiak Josefina Arregi klinika psikogeriatricoarendako izanen dira.

Emanaldi berezia

Ikuskizunaren gidoia, koreografiak, eszenografia eta musika Ortzadar Elkarteko kideek sortu dute. Ortzadarreko dantzariak taularatuko dute ikuskizuna ere. Josefina Arregi klinikan lana gertutik ezagutzen dute elkarteko kideak, izan ere, "hainbat senideak tratatu dituzte", azaldu du ikuskizunaren arduradunak. Hortaz, zerbait egitea proposatu zieten: "hasieran emanaldi solidario bat egitea proposatu ziguten, hau da, gure emanaldi ohiko bat. Baina zerbait berezia egin genezakeela pentsatu genuen".

Duela hamar hilabete inguru hasi ziren emanaldi "berezia" prestatzen. Ikuskizunaren xedea gaitza ezagutzen ez duten pertsonen "gerturatzea" da, alzheimer eta dementzia gaitzak ezagutaraztea: "gaitzaren eragina pairatzen duten pertsonen pasarteak eta ahanzturak kontatzen ditu, eta senideengan duen eragina".



Ortzadar Euskal Folklore elkarte kideak ikuskizuna prestatzen. UTZITAKOA

ANTZEZTUTAKO DANTZAREN BIDEZ ALZHEIMER GAITZAREN ERAGINA AZALDUKO DUTE

Josefina Arregi klinikaren sorrera kontatzen dute ere. "Bi gauzak elkartu ditugu".

Ikuskizunak bost ekitaldi ditu, eta istorioa antzeztutako dantzan kontatuko dute. Musikak ere garrantzia izanen du. Oinarria euskal dantza da. "Antzezpenez erroka bat izan da guretzat. Denbora daramagunok holako ikuskizun batean parte hartu genuen 2012an, baina jende berria sartu da eta beraientzako berria izan da". Antzerki klaseak jaso dituzte.

Momotxorroak

Ortzadar Euskal Folklore elkarte kide bat Buztintxuriko erraldoi eta buruhandien konpartsan aritzen da, hortaz, ikuskizunean erraldoiak atera zitezkeela pentsatu zuten. "Gero pentsatu genuen ea nor gehiagok atera zezakeen eta Altsasuz ari

ginenez Momotxorroak agertu zitezkeela pentsatu genuen". Inauterietako batzordearekin harremanetan jarri ziren eta ikuskizunean parte hartzeko prest agertu ziren. "Kontakizunaren parte izanen dira".

Alzheimer eta dementzia gaitzak barrutik azaldu nahi ditu Ortzadar Elkarteko *Ahanzturaren lorratza* ikuskizunean, eta gaitzak ez dira "pozgarriak"; hortaz, "tonu triste eta emozionala eman diogu ikuskizunari. Baina gaitzaren bi ikuspuntuak adierazi nahi izan ditugu. Pozgarriak diren unetxoak egonen dira". Hala ere, mukizapiak prest izateko gomendatzen dute: "gehien bat gertutik bizi izan duten pertsonen benetan sentituko dute".

Emanaldia euskaraz izanen da, baina aldibereko itzulpena proiektatuta egonen da. Ortzadar Euskal Folklore elkarte "osoak" parte hartu du ikuskizunean, gainera, elkarteko folklore eskolako haur dantzariak dantzatuko dute. Fanfarreko hamar musikaririk jarriko dute musika, eta Altsasuko Momotxorroek eta Buztintxuriko erraldoiek parte hartuko dute.

Marta Barquilla Barroso studygram bat dauka *Mardaba* izengoitiarekin.

"Studygram ikasleen komunitate bat da"

Marta Barquilla Barroso altsasuarra *Mardaba* izengoitiarekin ezagunagoa da. Instagram sare sozialean studygram bat dauka. Bertan, ikasten duenaren berri ematen du, eta espezialitate berdina ikasten duen jendearekin harremanetan dago.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zer da studygram bat?

Instagram sare sozialeko ikasleen komunitate bat da. Komunitate honek apunteak igotzen ditu, ikasketen inguruko aholkuak... Apunte politak jartzen dira, eta beste kontu batzuk ikasketa aholkuak eskaintzen dituzte.

2 Zergatik hasi zenuen zure kontua?

Neurozientzak adarrekoa naiz, gainera, PIR-erako ikasten ari naiz. Kontu pertsonal moduan hasi nintzen, baina konturatu nintzen apunteak jartzen nitueanean jende askok idazten zidala. Orduan, duela bi urte inguru studygram bezala fokuratzea pentsatu nuen. Unibertsitate

gauzei buruz hitz egiten dut, ikasketak nola doazen, apunteen argazkiak igotzen ditut...

3 Beraz, ikasten den bitartean egiten dira studygram-ak. Denbora galtzen da?

Bai. Denbora eskaini behar zaio. Ez da bakarrik argazkia ateratzea eta sare sozialean jartzea. Jendeak idazten dizu eta jende ho-

rri erantzun behar zaio. Denbora eskaini behar diozu jendeari gustatzen zaion edukia jartzeko. Elkarri laguntzen diogu.

4 Nola laguntzen dizu?

Zure egoeran dagoen jendea da. Zure lagunek normalean ez dute ulertzen ikasten ari zarela eta ezin zarela atera. Ikasteak denbora eta irmotasuna eskatzen du, eta zu bezalako jendearekin elkartu behar zara. Euskarri bat da.

5 6.000 jarraitzaile baino gehiago dituzu. Zein da arrakastaren sekretua?

Nik ez ditut jarraitzaileak bilatzen. Nire jarraitzaileak ezagutzea gustatzen zait, nor diren jakitea eta asko badituzu ez dakizu nortzuk diren. Baina 20.000 eta 30.000 jarraitzaileetako kontuak badira. Niretzako garrantzitsuena ikasketak dira. Marrazkiak igotzen ditut eta orain oso modan dagoen *Bullet Journal* delakoa, eta horrek jendea erakartzen du. Gauza politak ikustea gustatzen zaio.

6 Helbururen bat markatu duzu?

Ez, nahi dudalako egiten dut. Ikasten nagoenean ordu bat ikasten dut eta etenalditxo txiki bat egiten dudanean Instagram-en sartzen naiz, iruzkinak irakurri eta erantzuten ditut... Argazkiak egiteko desastre hutsa naiz. Nik uste nire argazkiak gustukoak direla kolore asko erabiltzen ditudalako. Gainera, papertegiarekin friki bat naiz eta ateratzen diren txorakeri guztiak izan behar ditut.

7 Papertegiari buruzko sarrerak gustukoak dira ere, beraz?

Bai. Negozio bat bihurtu da eta markek asko saltzen dute. Batek boligrafo berri bat igotzen badu, guztiok nahi dugu boligrafo hori. Komunitate izugarri handia bihurtu da. Honi buruz artikulua bat idatzi zuten eta *egoempollones* deitu ziguten. Komunitatea haserretu zen.

8 Zenbakiengatik obsesionatu zaitezke?

Obsesioa badago, bai. Mezu pribatuak iritsi zaizkit eskatzen haien kontua gomendatzeko. Baina nik ez dut kontu bat gomendatuko ez bazait gustatzen. Galdetzen dizute nola lortu dituzun hainbeste jarraitzaile eta abar. Haien helburua jarraitzaile asko izatea da gauzak doan jasotzeko.

9 Kolaborazioaren bat egin duzu?

Bai, boligrafo marka bat nirekin harremanetan jarri zen zozketa bat egin nezan. Jendeak parte hartu zuen eta ongi egon zen.

10 Nola lortzen dira kolaborazioak?

Enpresetako harreman publikoko arloak mezu bat bidaltzen dizu eta azaltzen dizu zer eskaintzen dizun. Galdetu zidaten ea zenbat kobratzen nuen. Instagram-eko gailurrean daudenak holako gauzekin kobratzen dute. Honetaz bizi dira.

11 Zure jarraitzaile kopuruarekin studygram munduaren barruan ezaguna zara. Herrian ospe honen albisterik badute?

Herriko jendea Instagramen dagoela badakit, baina studygramarekin ez dut inor ezagutzen. Osoa: www.guaixe.eus.

Uda honetan zure tabernako irudia freskatu!

Menuak, komandak eta publizitatea